

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

4968

EBAZPENA, 2012ko urriaren 16koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Akademia Antolakuntzako errektoreordearena, honako hau argitaratzekoa: Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudia, 2012ko irailaren 27ko Gobernu Kontseiluan onartua.

2011ko azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretuak, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituenak, lege esparru berri bat ezarri du unibertsitateko praktiken arloan. Dekretuak indarrik gabe uzten ditu 1981eko ekainaren 19ko 1497/1981 Errege Dekretua, Hezkuntza Lankidetzarako Programak arautzen zituenak, eta haren geroko bertsioak, ez baitzen egokia praktika mota hauen egungo arazoei egokiro erantzuteko.

UPV/EHUK hainbat araudi eduki ditu kanpoko praktika akademikoen arlo honetan. Banan-banan arautu izan dira ikasleek unibertsitateko kanpo eta unibertsitatearen barruan egiten dituzten praktika mota desberdinak (curriculumaren barrukoak edo kanpokoak). Zehazkiago, curriculumaren barruko praktikak arautu izan dira ikasturtero berritzen den Gradu eta lehenengo eta bigarren zikloko ikasketen gestiorako arautdiaren bidez, eta curriculumetik kanpoko praktikak, berriz, Hezkuntzarako Lankidetzaren Programen arautegiaren bidez.

Gaur egun beharrezkoa da praktika akademikoen gaineko araudi horiek 2011ko azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretura moldatzea. Dekretuak garatu, zehaztu eta argitzen ditu praktiken helburuak, praktikan parte hartzen dutenen –erakunde laguntzaileen, unibertsitatearen eta ikasleen– eskubide eta betebeharrak, eta hezkuntza lankidetzarako hitzarmenen edukia.

Beraz, eguneratzeko premia hori aprobetxaturik, UPV/EHUK erabaki du testu bakar batean biltzea kanpoko praktika akademikoen arautegi guztiak, hau da, praktika mota guztienak (curriculumaren barrukoak eta kanpokoak) eta ikasketa maila guztienak (graduak, master ofizialetako eta berezko tituluak praktikak).

Helburu nagusia da unibertsitateko ikasleek prestakuntza osoago bat lortzea ikasten ari diren bitartean egiten dituzten praktika hauen bidez, baina, horretaz gain, lagundu nahi diegu administrazio publikoetan eta enpresa pribatuetan sartzen, eta ugaritu nahi ditugu etorkizuneko profesional hauek lana aurkitzeko oportunitateak; haien ekimena, sormena eta berritzeko gaitasuna sustatu nahi ditugu, eta bete gura dugu gure konpromisoa jakintzaren gizarlean oinarritutako transformazio ekonomikoan parte hartzeko.

1393/2007 Errege Dekretuaren ondoko ikasketa berrietan, prestakuntza teorikoa ez ezik ikasleek eskuratu beharreko prestakuntza praktikoa ere jasotzen da, tartean kanpoko praktikak. Gainera, kanpokoak izate horrek aukera ematen digu lankidetzaren estuagoan jarduteko unibertsitatearen ingurunean enpresa eta erakundeekin.

Proposamen hau 2012-07-19ko Gobernu Kontseiluan aurkeztu zen, eta bertan irailaren 13ra bitarteko epea zabaldu zen iradokizunak egiteko. Jasotako proposamenak aztertu dira beren bultzatzaileekin; gero, Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak 2012-09-20ko bileran onatzen ditu eta erabaki du testuan sartzea. Beraz, testu berriak batzordearen onespenez dauka.

2012ko azaroaren 12a, astelehena

Horregatik guztiagatik, Estatuetako 177.1.b) artikulua betetzeko, proposamena Gobernu Kontseiluari aurkeztu zitzaion eta horrek, 2012ko irailaren 27ko bileran onartu zuen.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, eta Euskal Unibertsitate Sistemari Buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeko 10.2 artikulua dioena betetzeko, honakoa

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudia, 2012ko irailaren 27ko Gobernu kontseiluan onartua.

Leioa, 2012ko urriaren 16a.

Errektorea.

EE (2011ko otsailaren 25eko Ebazpena, 2011-03-17ko EHAA).

Akademia Antolakuntzako Errektoreordea,
JAVIER GIL GOIKOURIA.

IKASLEEN KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOEN ARAUDIA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Helburua eta definizioak.

1.– Araudi honen helburua da ikasleen kanpoko praktika akademikoak, hala gradukoak nola master ofizial eta berezko ikasketei dagozkienak, arautzea, aplikatu beharko litzatekeen beste ezein araudiri horregatik bidea eragotzi gabe.

2.– Araudi honen ondorioei begira, honako hauek ulertuko ditugu:

a) Tutorea da erakunde laguntzaile batean kanpoko praktika akademikoak egiten ari den ikaslearen jarraipenaz eta laguntzaz arduratuko den irakaslea eta ikertzailea, eta UPV/EHUko kidea. Ikasle bakoitzari egokituko zaio bere tutorea.

b) Instruktoea da kanpoko praktika akademikoak bururatuko diren erakunde laguntzaileko kidea, formaziorako jarduerak Unibertsitatearekin bat eginik antolatzeko ardura duena.

c) Praktiken Programaren Arduraduna (PPA, aurrerantzean) da kanpoko praktika akademikoen programaren antolakuntza, koordinazio eta kudeaketaren ardura duen Ikastegiko edo Unibertsitateko egituran diharduen pertsona.

d) Erakunde laguntzailea da UPV/EHUrekin kanpoko praktika akademikoak bururatzeko akordiora iristeko gaitasuna duen enpresa edo erakundea.

Araudi honen ondorioei begira, «erakunde laguntzailea» terminoak hartuko ditu, halaber, beharrezkoa den prozedura bete eta gero, ikasleen kanpoko praktika akademikoak eskaintzeko onartuko diren UPV/EHUren antolakuntza-unitateak.

2. artikulua.– Kanpoko praktiken kontzeptua, izaera eta ezaugarriak.

1.– Ikasleek gauzatzen eta Unibertsitateak gainbegiratzen dituzten prestakuntza-jarduerak dira kanpoko praktika akademikoak, eta ikasleei prestakuntza akademikoan jaso dituzten ezagutzak garatzeko eta osatzeko bidean laguntzea da haien helburua, jarduera profesionalerako prestatzen, lan-merkatuan egokitzen eta ekimenerako gaitasuna sustatzen lagunduko dieten gaitasunez ahalik eta errazkien jabe daitezen.

2.– Unibertsitatean berean edo erakunde laguntzaileen egoitzetan, hala nola nazio edo nazioarte mailako enpresa, instituzio eta erakunde publiko eta pribatuetan, burutu ahal izango dira kanpoko praktika akademikoak.

3.– Kanpoko praktika akademikoen prestakuntza izaera dela eta, haien bururatzeko-prozesuan inolaz ere ez da lan-harreman bati dagozkion betebeharrak ondorioztatu ahal izango, eta haren edukian inolaz ere ez da lanpostu bati dagozkion betebeharrak ordezkari litzakeen egitekorik onartuko.

4.– Era berean, ikasketak bukatutakoan ikaslea erakunde laguntzaileko langile bilakatzen bada, praktikan eginiko denbora ez da antzinasunari begira aintzat hartu ahal izango eta langile berria ez da horregatik proba-epea igaro beharrik gabe gertatuko, baldin eta aplikatu beharreko lan-hitzarmenean ez bada horrelakorik zehazten.

3. artikulua.– Helburuak.

Honako helburu hauek lortu nahi dira kanpoko praktika akademikoen bitartez:

a) Ikasleen prestakuntza integrala bultzatu, haren ikaskuntza-prozesu teorikoa eta praktikoa osatuz.

b) Ikasleak jardun beharko duen errealitate profesionalaren araberako metodologiaren ezagutza erraztu, jasoriko ezagutzak kontrastatuz eta bideratuz.

c) Teknologia, metodologia, norbera eta besteekiko parte-hartzearen gaineko gaitasunen garapena erraztu.

d) Lan-merkatuan sartu, eta etorkizuneko laneratze aukerak erraztuko dituen esperientzia praktikoa lortu.

e) Berrikuntza-, sormen- eta ekimen-balioak sustatu.

4. artikulua.– Kanpoko praktika akademiko motak.

Curriculum barrukoak eta kanpokoak izan daitezke kanpoko praktika akademikoak.

a) Dagokien Ikasketa Planen araberako jarduera akademikoak dira curriculum barruko praktikak.

b) Curriculumetik kanpoko praktikak dira ikasleek, dagokien Ikasketa Planetik kanpo daudela jakinik, prestakuntza garaian beren nahiaz egin ahal izango dituzten praktikak, baldin eta haien helburuak curriculum barruko praktikenak eta berak badira. Hala eta guztiz ere, Tituluaren Gehigarri Europarrean hartuko dira aintzat praktika hauek. Ondorio akademikoei begira, dagozkien ikasketa-plan eta -araudietan erabaki bezala hartuko dira praktika mota hauek aintzat.

5. artikulua.– Praktiken iraupena eta ordutegiak.

1.– Honenbestekoa izango da praktiken iraupena:

a) Dagokien ikasketa planak zehaztu adina iraungo dute curriculumaren araberako kanpoko praktikek.

b) Curriculumetik kanpoko praktiken iraupenak ez du gaindituko, ahal bada, ikasturtearen % 50. Haien iraupena zehaztearren, ikaslea matrikulaturik dagoen kreditu kopurua hartuko du aintzat PPAk, eta une oro zaindu eta begiratuko du ikaslea jarduera akademikoak egoki garatzen eta jarraitzen ari dela.

2.– Ikasketen eta dagokien planaren arabera zehaztuko dira 8. artikulua aipagai duen hitzarmenean ikasturte akademiko bakoitzean bideratuko diren praktikak hasteko eta amaitzeko egunak.

3.– Haietako bakoitzaren ezaugarrien eta erakunde laguntzailearen aukeren arabera zehaztuko dira praktiken ordutegiak. Nolanahi ere, bateragarriak izango dira ordutegi horiek ikasleak unibertsitatean garatu beharreko prestakuntza eta jarduera akademikoekin, baita haren ordezkartza- eta partaidetza-betebeharrekin ere. Ikasketen bukaerak praktikena ere ekarriko du, ezinbestez. Ikasketak amaitu ondoren, soilik aldeztu aurretik baimendutako praktikak amaitu ahal izango dira, eta ez dira luzatuko sinatutako hitzarmenaren indarraldia amaitzean; horrelakoetan, ikasleak eskola-asegurua, CUM LAUDE poliza edo antzeko zerbait izan beharko du.

6. artikulua.– Praktiken Programaren arduradunaren (PPA) funtzioak.

Kanpoko praktika akademikoen programaren antolakuntzan, koordinazioan eta kudeaketan, honako funtzio hauek ditu, besteak beste:

1.– Hitzarmenen tramitazioa bultzatu, eta haien edukia hitzartuko du erakunde laguntzailearekin. Bideratu beharreko hitzarmena eta dagokion eranskina bestelakoak izanez gero, PPAk egiaztatu beharko du haren edukia araudi honetara egokitzen dela.

2.– Adostasuna adieraziko dio erakunde laguntzaileak hautaturiko instruktoreari. Adostasun horrekin batera, «venia docendi» aitortuko zaio. Araudi honen 13.3 artikuluan adierazitako prozeduraz gauzatuko da «venia docendi» delakoa.

3.– Araudi honen 19. artikuluan aintzat harturiko irizpideei jarraiki, erakunde laguntzailea eskatu duten ikasleen zerrenda prestatuko du.

4.– Erakunde laguntzailean egindako praktiken emaitzen berri jakinaraziko die Campuseko Errektoreordetzen kanpoko praktika akademikoen zuzendari arduradunei. Berezko Ikasketei dagokienez, Akademia Antolakuntzako Errektoreordetzaren praktikako arduradunari emango zaio informazio hori.

7. artikulua.– Prestakuntza Proiektua.

1.– Kanpoko praktika akademiko bakoitza prestakuntza-proiektuan zehazten da, eta proiektu horretan finkatzen dira, halaber, hezkuntza-helburuak eta bideratu beharreko jarduerak. Ikasleek berenganatu behar dituzten oinarrizko gaitasunak, orokorrak nahiz bereziak, kontuan harturik zehaztuko dira helburuak. Era berean, praktikaren edukiak definituko dira eginiko ikasketetan eskuratu beharreko gaitasunekin lotura zuzena dutela ziurtatuta.

2.– Nolanahi ere, inklusioa, aukera-berdintasuna, bereizkeriarik eza eta irisgarritasun unibertsala izango dira betiere prestakuntza-proiektuaren oinarriak.

3.– Dagokion ikasketa-planean ezarritakoa abiapuntua izanik, tutorearen ardura izango da kanpoko praktika akademikoen prestakuntza-proiektua egitea. Era berean, erakunde laguntzailearen instruktoreak hala proposatuta, prestakuntza-proiektu horretan nahitaezko egokitzapenak egingo ditu, praktika normaltasunez gauzatzearren.

8. artikulua.– Hezkuntza Lankidetzarako Proiektuak.

1.– Kanpoko praktika akademikoak bideratu ahal izateko, Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenak sinatuko ditu Unibertsitateak araudi honen 2.2 artikuluan aurreikusten diren erakunde laguntzaileekin eta bereziki sustatuko du erakunde horietarako irisgarritasuna, ikasle ezinduek ere praktikak egin ahal izan ditzaten. Xede horri begira, behar diren giza baliabide eta baliabide material eta teknologiko guztiak bideratuko ditu aukera-berdintasuna berma dadin.

2.– Hitzarmenetan zehaztuko dira ikaslearen, erakunde laguntzailearen eta Unibertsitatearen arteko harremanak arautuko dituen markoa. Araudi honen II. eta III. eranskinetan jaso dira praktika mota bakoitzerako aintzat hartu beharreko hitzarmen-ereduak.

3.– Ikasleen praktikak jasoko dituzten Unibertsitate antolakuntza-unitateen kasuan, guztiz beteko da praktiken gaineko araudi honen 21. artikulua xedaturikoa. Dagokien eranskinetan jaso dira Unibertsitatearen eta bere antolakuntza-unitateen artean aintzat hartu beharreko hitzarmen-ereduak, kontuan harturik praktikak curriculumaren arabera diren edo ez.

9. artikulua.– Praktiken hartzaileak eta haietan esku hartu ahal izateko betekizunak.

1.– Kanpoko praktika akademikoak egin ahal izango dituzte:

a) Unibertsitatean irakasten den zeinahi ikasketatan matrikulaturiko ikasleek.

b) Espainiako edo atzerriko beste unibertsitateetako ikasleek, baldin eta, mugikortasun akademikorako programen edo unibertsitateen arteko hitzarmenen bidez, UPV/EHU ikasten ari badira.

2.– Praktikak egin ahal izateko, honako betekizun hauek bete beharko dituzte ikasleek:

a) Ikasleek praktika bitartean jaso eta landu behar dituzten oinarrizko gaitasun orokor nahiz bereziekin loturiko unibertsitate-ikasketetan matrikulaturik egotea.

b) Curriculumaren araberako kanpoko praktiken kasuan, haiei loturiko ikasgaiari matrikulaturik egotea, dagokion Ikasketa Planaren arabera.

c) Praktikak bideratuko diren enpresa, instituzio edo erakunde publiko edo pribatuarekin, edo Unibertsitatearekin berarekin, inolako kontratu-loturarik ez edukitzea, Akademia Antolakuntzako errektoreordeak zehaztuko dituen organoek horretarako baimena berariaz ematen duten kasuetan izan ezik.

d) Araudi honek, praktika mota bakoitzerako eta dagokion Ikasketa Planaren arabera, II. Kapituluari praktikak egin ahal izateko zehaztu dituen gainerako betebeharrak bereziak betetzea.

10. artikulua.– Praktiketari diren ikasleen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Kanpoko praktika akademikoetan ari diren bitartean, honako eskubide hauek izango dituzte ikasleek:

a) Praktikek irauten duten bitartean, Unibertsitateko irakasle baten edo praktika bideratzen ari den enpresa, instituzio edo erakundearen jardunean ari den profesional baten tutoretzarako eskubidea.

b) Ebaluaziorako eskubidea, Unibertsitateak zehazturiko irizpideen arabera.

c) Praktiken ondoko txostena jasotzeko eskubidea. Praktikak eskaini dituen erakunde laguntzaileak emango du, eta berariaz zehaztuko dira hartan bideraturiko jarduera, haren iraupena eta, hala behar badu, errendimendua. Txostena araudi honen IV. eranskinaren araberako ereduari jarraiki egingo da.

d) Hala zehaztu den kasuetan, erakunde laguntzaileak, ikasketetarako laguntza gisa, zehaztu duen ekarpen ekonomikoa jasotzeko eskubidea.

e) Jabetza intelektual eta industrialerako eskubidea, arloan arloko legediak arautzen dituen terminoetan, ikasleek eskubide horren zehazketa edo transmisiorako dokumentua sinatu duten kasuetan izan ezik.

f) Segurtasun eta lan-arriskuen prebentziorako araudiaren gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, erakunde laguntzaileak eman beharko duena.

g) Bere jarduera akademikoa, prestakuntza-lana eta ordezkaritza- nahiz partaidetza-betebeharrak betetzeko eskubidea, aldeztu aurretik erakunde laguntzaileari jakinarazita.

h) Ikasle ezinduen kasuetan, praktikak besteen baldintza berdinetan egiteko eta tutoretza, informazioa eta ebaluazioa jasotzeko eskubidea. Beharrezkoak diren baliabideak jarriko dira ikasle ezinduen esku, eskubide hori bermatzearen.

i) Ikasle ezinduen kasuetan, praktiken garapena ezintasunaren ondorioz eratorririko edo harekin loturiko jarduera eta egoera pertsonaletara egokitzeko eskubidea.

j) Indarrean dauden araudietan eta/edo Unibertsitateak erakunde laguntzailearekin Hezkuntza Lankidetzarako izenpeturiko Hitzarmenetan aurreikusi diren beste eskubideak.

2.– Era berean, honako betebeharrak izango dituzte ikasleek kanpoko praktika akademikoak egin bitartean:

a) Kanpoko praktiken arloan indarrean dagoen araudia, Unibertsitateak zehaztu zuena, beteko dute.

b) Praktiken gaineko Prestakuntza Proiektua ezagutu eta beteko dute, erakunde laguntzaileak izendaturiko instruktorearen oharrei jarraiki eta unibertsitateko tutorearen begiradapean.

c) Praktikak dirauten bitartean, Unibertsitateko tutorearekin harremanetan egon behar dute, eta haietan sor litekeen zehazkizunak gorabeheraren berri emango diote. Aurkeztu ere egingo dituzte eskatutako zehazkizun dokumentuak, txostenak eta amaierako memoria.

d) Hitzarturiko egunean hasiko dira lanean erakunde laguntzailean; hezkuntza-proiektuan aurreikusitako ordutegia beteko dute, eta erakundearen jarduerarako, segurtasunerako eta lan-arriskuen prebentziorako arauak errespetatuko dituzte.

e) Hezkuntza Proiektua garatuko dute, eta prestasunez beteko dituzte erakunde laguntzailearekin aintzat harturiko jarduerak, hitzarmenean zehazturiko lan-lerro nagusien arabera.

f) Praktiken tarteko txostena eta amaierako memoria prestatuko dituzte, araudi honen 15. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

g) Hartan egon bitartean eta egonaldiaren ondoren ere, isilpekotasunari eutsiko diote erakunde laguntzailearen barne-informazioaren inguruan, eta sekretu profesionala zainduko dute haren jardueren aurrean.

h) Errespetuzko jarrera erakutsiko dute une orotan erakunde laguntzailearen politikaren aurrean, partaide den Unibertsitatearen izen ona zainduz.

i) Indarrean dauden araudietan eta/edo Unibertsitateak erakunde laguntzailearekin Hezkuntza Lankidetzarako izenpeturiko Hitzarmenetan aurreikusi diren beste zehazkizun betebeharrak.

3.– Aurreko atalean aurreikusi diren betebeharrak konplitu ezean, bukatu aurretik utzi ahal izango da praktika bertan behera. Horretarako, beste aldeari jakinaraziko dio UPV/EHUk edo erakunde laguntzaileak arau-hauste horren berri, eta aldean artean izenpeturiko lankidetzaren hitzarmenean aurreikusi bezala trenkatu beharko da auzia.

4.– Betebeharrak konplitzen ez badituzte edo praktika uzten badute, zigortu eta praktika berrietarako baimena esleitzeko lehentasunerako aukerarik gabe gertatuko dira ikasleak.

11. artikulua.– Ikasleen gainbegiratzea UPV/EHUk eta erakunde laguntzailean.

1.– Kanpoko praktikak egiteko, ikasleak Unibertsitateko tutorea eta erakunde laguntzaileko instruktorea izango ditu ondoan.

2.– Araudi honetan irakaskuntza mota bakoitzari zehaztu zaizkion xedapen berezien arabera izendatuko da Unibertsitatearen tutorea.

3.– Egiteko horri begira beharrezkoak diren informazioa eta prestakuntza emango dizkie Unibertsitateak ikasle ezinduen tutoreei.

4.– Erakunde laguntzaileak izendatuko duen instruktorea erakunde horri berari loturiko pertsona bat izango da eta, eskarmentu profesionalaz gainera, tutoretza eraginkor bideratzeko behar diren ezagutzen jabe izango da. Instruktoorea eta Unibertsitatearen tutoretza-lanak beteko dituen pertsona ez dira bat eta bera izango. Instruktoeak PPAren adostasuna izan beharko du, eta «venia docendi» aitortuko zaio, araudi honen 13.3. artikuluan zehaztutako prozeduraren arabera.

12. artikulua.– Unibertsitateko tutorearen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Honako eskubide hauek izango ditu Unibertsitateko tutoreak:

a) Bere jarduera akademikoaren ezagutza eraginkorrerako eskubidea, Unibertsitateak, dagokion unibertsitate-araudian eta Lehenengo Xedapen Iragankorrean aurreikusirikoari jarraiki, xedatuko dituen terminoetan.

b) Kanpoko praktikak eta Prestakuntza Proiektua arautzen dituen araudia eta tutoretzapean eduki beharreko ikaslearen egonaldiaren baldintzak ezagutzeko eskubidea.

c) Erakundearen sarrera izateko eskubidea, bere eginkizunak bete ahal izateko.

2.– Era berean, honako betebeharrak izango ditu:

a) Prestakuntza Proiektua gorabeherarik gabe gauza dadin zaintzea, eta praktiketako ordutegia eta ikaslearen betebeharrak akademikoak, prestakuntza-lana eta ordezkartzeko nahiz partaidetzako betebeharrak bateragarriak izan daitezen bermatzea.

b) Praktiken jarraipen eraginkorra bideratzea. Horretarako, erakunde laguntzailearen instruktorearekin koordinatuko da, eta aztertu egingo ditu, hala behar bada, jarraipen-txostenak.

c) Prestakuntza Proiektuan bidera litezkeen aldaketak baimentzea.

d) Tutoretzapeko ikaslearen praktiken ebaluazio-prozesua gauzatzea, Araudi honen 16. artikulua xedaturikoaren arabera.

e) Tutore-lanaren bidez lorturiko edo ezaguturiko zeinahi informazio isilpean gordetzea.

f) Unibertsitateko PPAri sor litekeen zeinahi gorabeherari buruzko informazioa ematea.

g) Ikasle ezinduek praktikak aukera-berdintasunean, bereizkeriarik jasan gabe eta irisgarritasun unibertsala xedatzen duen printzipioaren arabera egiteko, laguntzarako behar dituzten baliabideak egoki bideratu direla begiratzea eta, hala behar bada, hala egin dadila bermatzea.

13. artikulua.– Erakunde laguntzaileko instruktorearen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Honako eskubide hauek izango ditu erakunde laguntzaileko instruktoreak:

a) Bere laguntzaile jarduera aitortzeko eskubidea, artikulua honen 3. zenbakian jaso diren terminoen arabera.

b) Kanpoko praktikak eta Prestakuntza Proiektua arautzen dituen araudia eta haien garapenaren baldintzak ezagutzeko eskubidea.

c) Unibertsitatean sarrera izateko eskubidea, bere eginkizunak betetzeko behar dituen informazioa eta babesa eskuratzeko.

d) Instruktoreek euren etengabeko prestakuntzari lagun diezaioketen unibertsitateko instalazioak eta zerbitzuak (liburutegiak, mintegiak, eta abar) erabiltzeko eskubidea.

e) Unibertsitateak aintzat hartu ahal izango dituen beste kontsiderazio berezi guztiak.

2.– Era berean, honako betebeharrak izango ditu:

a) Ikasleari harrera egin eta garatu beharreko jarduera Prestakuntza Proiektuan zehaztutakoaren arabera antolatzea.

b) Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea, praktikaren garapena orientatzea eta kontrolatzea, elkarrekiko errespetuan eta ikaskuntzarekiko konpromisoan oinarrituriko harremanean.

c) Ikasleari erakundearen antolakuntzaren eta funtzionamenduaren berri ematea eta intereseko araudia ezagutaraztea, segurtasun eta lan-arriskuen arlokoa batez ere.

d) Hezkuntza-lankidetzarako hitzarmenean zehazturiko jardueren garapena Unibertsitateko tutorearekin koordinatzea, aintzat harturik aldi berean praktikaren garapen egokiari begira prestakuntza-proiektuan beharrezkotzat jo litezkeen aldaketak, eta bitarte horretan gerta litezkeen gorabeherak jakinaraztea eta soluziobidean jartzea. Haren ardurapeko egitekoa izango da, halaber, azterketak egiteko baimenen kontrola.

e) Tarteko eta amaierako txostena, Araudi honen 14. artikulua aipagai duena, prestatzea.

f) Ikasleei praktikak egin ahal izateko behar duten prestakuntza osagarria ematea.

g) Ikasleei praktikak egin ahal izateko behar dituzten bitarteko materialak ematea.

h) Ikasleei erraztasunak eta bultzada ematea, berritzaileak eta ekintzaileak izan daitezten eta hobetzeko proposamenak egin ditzaten.

i) Unibertsitateko tutoreari erakunderako sarrera zabaltzea, bere eginkizunaren arabera helburuak bete ahal izan ditzan.

j) Instruktoxe lanaren bidez ikasleari buruzko informazioa eskuratzen badu, informazio hori isilpean gordetzea.

k) Erakundearen ari den bitartean, ikasleari beharreko laguntza ematea, eginkizun dituen jardueretan suerta litezkeen lan izaerako arazoaren konponbideari begira.

l) Guztiz bermatuko du bere instalazio eta baliabideen erabilera, praktiken garapenari begira, eta berak zehaztuko du, halaber, hartu ahal izango dituen ikasleen kopurua, bere eskura dauden baliabideen eta lortu nahi diren helburuen arabera.

3.– X. eranskinak dioenari jarraiki, UPV/EHUK venia docendi aitortuko die, lankidetzarako hitzarmenean arauturikoaren ondorioei begira, erakunde laguntzaileko instruktoreei, Campuseko Errektoreordeak, Unibertsitate Ikastegiak eta Campuseko praktika akademikoen zuzendari arduradunak hala eskatuta, xede horretan eta banan-banan egingo dituen izendapenen bitartez.

14. artikulua.– Erakunde laguntzaileko instruktorearen tarteko eta amaierako txostena.

1.– Erakunde laguntzaileko instruktoreak amaierako txostena prestatu eta igorriko die Unibertsitateko tutoreari eta ikasleari. Txosten hori praktikak bukatutakoan idatziko da, eta IV. eranskineko ereduari aintzat harturiko puntuak bilduko ditu.

2.– Hitzarmenean hala finkatuz gero, praktiken erdialdea igaro ondoren, tarteko jarraipen-txosten bat egin ahal izango da.

15. artikulua.– Ikaslearen praktiken erdialdeko jarraipen-txostena eta amaierako memoria.

1.– Ikasleak amaierako memoria prestatu eta igorriko dio Unibertsitateko tutoreari. Memoria hori praktikak bukatutakoan idatziko da eta V. eranskineko ereduari aintzat harturiko puntuak bilduko dira hartara.

2.– Ikasleak praktiken jarraipen-txosten bat prestatu beharko du, praktika-epearen erdia igaro denean ahal izanez gero, tutoreak hala egiteko eskatzen badio. Prestakuntza Proiektuaren garapenaren balorazioa egingo du ikasleak txosten horretan.

16. artikulua.– Praktiken ebaluazioa eta egiaztatzea.

1.– Unibertsitateko tutoreak praktikak ebaluatuko ditu, instruktorearen txostena eta ikaslearen txostenak eta memoria oinarritzat hartuta. Horretarako, amaierako ebaluazio-txostena beteko du, VI. eranskinean aurreikusitako alderdiak bertan jasota, eta dokumentu hori erabiliko da praktikak egiaztatzeko.

2.– Tituluaren Europar Gehigarrian jasoko dira bururatu diren kanpoko praktikak, dokumentu horren gaineko araudiak zehaztu bezala.

17. artikulua.– Istripuen aurkako eta erantzukizun zibileko aseguruak

1.– UPV/EHUK erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat hitzartu du, ikasleek praktikak egitean egin litzaketan kalteak estaltzeko.

2.– Erakundeko instruktoreak praktiken jarduera programan zehaztu ez duen agindu edo jarraibideren baten ondorioz kalteak gertatzen badira, haien erantzukizuna inola ere ez da Unibertsitatearena izango, ez eta praktiketan ari den ikaslearena ere.

3.– Ikasketa ofizialetan, ikasleak 28 urte baino gehiago edukiz gero, ezinbestekoa izango da ikasle bakoitzak aseguru bat izatea, eskola-aseguruaren osagarri gisa. Aseguru osagarri hori UPV/EHUK izenpetutako «CUM LAUDE» istripu-poliza kolektiboa izan daiteke, edo beste erakunde batek eskaintzen duen beste aseguruaren bat, baldin eta, gutxienez, UPV/EHUK bidez eskaintzen diren kontzeptuak («CUM LAUDE») aintzat hartzen baditu. Curriculumetik kanpoko praktikei dagokienez, egokia irudituz gero, modu osagarrian kontratatu ahal izango da aseguru hori aipatutako adina bete aurretik.

4.– Berezko Ikasketetan, eskola-aseguruak ez ditu ikasleak aintzat hartzen; hortaz, Berezko Tituluaren zuzendari akademikoak polizak sinatu beharko ditu gerta daitezkeen halabeharrak aseguratzeko.

5.– UPV/EHUK hitzarmena duten unibertsitate atzerritarretako ikasleek gutxieneko estaldura «CUM LAUDE» polizarenaren antzekoa duen istripu-poliza bat kontratatu beharko dute, praktikak bertan bururatu behar badituzte.

18. artikulua.– Betebehar fiskalak ikasketetarako burtsan edo laguntzan.

Kanpoko praktika bururatzeagatik ikasleari ikasketetarako burtsa edo laguntza bat abonatu behar bazaio, erakundeak indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-obligazioak bete beharko ditu.

19. artikulua.– Kanpoko praktiken eskaintza, zabalkundea eta esleipena.

1.– Ikastegiek eta Berezko ikasketen arduradunek zehaztuko dituzte kanpoko praktika akademikoen eskaintza, zabalkundea, eskaria eta esleipena, aurrez finkaturiko irizpide objektibo batzuen arabera eta gardentasun, jendaurreko publizitate, irisgarritasun unibertsal eta aukera-berdintasunerako printzipioak inolaz ere bermatuz.

2.– Honako datu hauek edukiko ditu, ahal den neurrian, kanpoko praktika akademikoetarako eskaintzak:

- a) Praktika bideratuko den erakunde laguntzailearen izena.
- b) Praktikak bideratuko diren gunea, hiria eta helbidea.
- c) Praktiken hasiera eta bukaera egunak, eta iraungo duten ordu kopurua.
- d) Egunean eskainiko zaien ordu kopurua eta ordutegia.
- e) Prestakuntza-proiektua, jarduerak eta landu beharreko gaitasunak.

3.– Lehentasuna izango dute curriculum barruko praktiketarako eskaerak curriculumetik kanpoko praktiketarakoen aldean.

4.– Praktika mota bakoitzaren esleipenari begira, irizpide objektiboak finkatuko dira ikasle hautagaiak ordenatzeko. Besteak beste, honako hauek izan daitezke: espedientearen batez bestekoa, gaindituriko kredituak, edo praktikak egiteko izena eman zen eguna, prozeduran izena aurrez emateko epea zabaldu bazen. Nolanahi ere, praktikak hautatzerakoan eta esleitzerakoan, lehentasuna izango dute ikasle ezinduek, irisgarritasun unibertsalerako neurri guztiak egiaztatzen dituzten enpresetara joateko aukera izan dezaten. Irisgarritasunerako neurri horien artekoak ditugu garraioari dagozkionak, lekualdatzeei begira, eta instalazioetan sartzeko erraztasunak.

5.– PPAk prestatuko ditu kanpoko praktika akademikoak egin nahi dituzten ikasle hautagaien zerrendak, aurreko atalean adierazi den prozedurari jarraiki.

6.– Praktiken antolakuntzan eta garapenean bereziki hartuko da kontuan ikasleek praktika horiek egiterakoan ahalegin ekonomiko txikiena egin behar izatea.

20. artikulua.– Kanpoko praktika akademikoen kalitatearen bermea.

Kanpoko praktika akademikoak ikasleak helburu duen titulazioaren kalitatea bermatzen duten sistema eta prozedurei atxikiko dira, zabalik utzirik beti ere berezko ezaugarrien arabera egin litezkeen egokitzapenetarako bidea.

21. artikulua.– Praktikak Unibertsitateko antolakuntza-unitate batean.

Araudi honen ondorioei begira, UPV/EHUren Estatutueta 10. eta 93. artikuluetan aurreikusiriko edozein unibertsitate-egitura edo -organo izan daiteke ikasleek kanpoko praktika akademikoak egin ahal izango dituzten erakunde laguntzailea, honako berezitasun hauek gogoan hartuta:

a) Kanpoko praktika akademikoetarako programak bururatzeko aukera eskaintzen duen antolakuntza-unitatea UPV/EHUren «zerbitzua» bada, guztiz kontuan hartu beharko da zerbitzu horrek A edo B taldeetako funtzionarioak, edo administrazioko I. edo II. taldeetako langileak dituela eta aukeraturiko instruktoerek talde horietako lanposturen batean ari behar duela eta horretarako proposamena espresuki onartu beharra daukala.

b) Dagokion Campuseko Errektoreordetzak onartu behar du Antolakuntza Unitatearen Arduradunak kanpoko praktika akademikoetarako programan parte hartzeko bultzaturiko ekimena, praktika Campus bakar batean garatu behar bada. Hala ez bada, Akademia Antolakuntzako errektoreordeak onartu beharko du, VII. eranskineko ereduari jarraiki.

c) Izenpetu beharreko dokumentuak VIII. eta IX. eranskin gisa ageri dira curriculumaren barruko eta curriculumetik kanpoko praktikei begira, dagozkien egokitzapenekin batera, eta Antolakuntza Unitatearen arduradunak sinatuko ditu, beharrezko diren beste sinadurekin batera.

d) Hala behar badu, VII. eranskinean zehaztuko da praktikaren ordainetan ikasleei ikasketetarako emango zaien burtsa edo laguntza. Ordainketa bakar batean egingo da haren abonua, edo bitan, praktika luzatuko den epea sei hilabetetik gorakoa bada.

e) Ekimena bideratuko duen antolakuntza-unitateak kreditu aski eduki beharko du bere aurrekontuan, ikasketetarako burtsa eta laguntzak eta unitateko praktika akademikoari begira onartu den programan ariko den ikasle bakoitzak kontratatu beharko duen cum laude aseguru-polizaren kuota abonatu ahal izateko.

22. artikulua.– Koordinazioa eta jarduerarako lerroen garapena.

1.– Akademia Antolakuntzako Errektoreordetzak eta hiru Campusetako Errektoreordetzek zehaztuko dituzte gradu eta master praktiketarako jarduera-lerro nagusiak.

2.– Campuseko Errektoreordetzaren ardura izango da dagokion Campuseko jarduera-lerroak garatzea.

3.– Campus bakoitzeko kanpoko praktika akademikoen zuzendari arduradunak zehaztuko du PPA guztiengandik, ikasleek ikastegian egingo dituzten praktiken emaitzari buruz, jaso behar duten informazioaren nolakotasuna, metodoa, maiztasuna eta mota. Informazio horren erabilera mugatua izango da betiere eta UPV/EHUren memorian islatuko diren datu globalak baizik ezin erabiliko dira publikoki edo jendaurrean.

4.– Berezko Tituluen kasuan, Akademia Antolakuntzako Errektoreordetzaren praktiken zuzendari ardurari informatuko zaio.

23. artikulua.– Aholkularitza-batzordea.

1.– Araudi honen aplikazioan gerta litezkeen arazo teknikoak ebaztearren, Aholkularitza Batzorde bat sortuko da, honako kide hauek osatua: Akademia Antolakuntzako Errektoreordetzako zuzendaria, praktiken arduraduna den aldetik izendatua, eta Campusetako Errektoreordetzetan kanpoko praktika akademikoen ardura duten zuzendariak. Batzorde horren burua Akademia

Antolakuntzako eskumena duen errektoreordea izango da, eta Errektoreordetza horren zuzendaria, berriz, idazkaria.

2.– Batzorde hori urtean behin bilduko da ohiko deialdian, eta behar bezainbeste bilkura berezi egin ahal izango ditu.

3.– Aholkularitza Batzordeak diseinatu eta eguneratuko ditu araudi honetan aintzat hartu diren Eranskinak.

II. KAPITULUA

XEDAPEN BEREZIAK IRAKASKUNTZA MOTAREN ARABERA

I. SEKZIOA

GRADUKO CURRICULUMEN KANPO-PRAKTIKA AKADEMIKOAK

24. artikulua.– Definizioa.

1.– Graduko ikasketen curriculumetik kanpoko praktika akademikoak unibertsitateko ikastegietan edo unibertsitateari hitzarmen edo itunen bitartez loturiko zentroetan egiten dira, ikasleak jarduera profesionalaren errealitatearekin erlaziona daitezten. Derrigorrezko ikasgaiekin lotzen direnez, derrigorrez bete behar dira dagozkion titulua lortu ahal izateko eta, beraz, Unibertsitateak bermatu behar du ikasle guztiek egin ahal izatea.

Praktika hauek Ikasketa Planaren barruan sartzen dira eta Graduko eta Lehen eta Bigarren Zikloetako Irakaskuntzen Kudeaketarako Araudiak xedaturikoaren arabera arautuko dira, araudi honetan aurreikusitakoa oztopatu gabe.

25. artikulua.– Antolakuntza, koordinazioa eta kudeaketa.

1.– Dekanotzak eta Ikastegietako Zuzendaritzak dira curriculumeko kanpoko praktiken antolakuntza, koordinazio eta kudeaketaren arduradunak, eta praktikei dagozkien sailaren laguntza jasoko dute egiteko horretan. Edonola ere, kontsulta egingo zaie sailei beti.

2.– Dekanoak edo zuzendariak hala eskatuta, jarduera hauek eta ukituriko sailekin lan egiteko era arautuko dituzten arau orokorrak onartuko dituzte Ikastegiko Batzarrek.

3.– Ukituriko Ikastegiek Praktiken Programaren arduraduna aukeratuko dute, beren barne-prozeduraren arabera. Dekanoak edo zuzendariak eskuordetuta, pertsona honen ardurapean egongo dira ikastegiko curriculumeko praktiken antolakuntza, koordinazioa eta kudeaketa. Hala behar izanez gero, Ikastegiko Praktiken Batzordearen edo, horrelakorik ezean, horietaz arduratzen den Batzordearen laguntza ere jaso ahal izango du.

26. artikulua.– Tutoreak izendatzea.

Tutorea Unibertsitateko irakaslea izango da, ahal neurrian ikaslea matrikulaturik dagoen unibertsitate-ikastegikoa, praktikarekin loturiko irakaskuntzan ari dena eta Ikastegiak zehaztuko duen prozeduraren arabera izendatutakoa.

27. artikulua.– Hitzarmenen tramitazioa eta izenpetzea.

1.– Jarduerak unibertsitateetik kanpo garatu behar direnean, dagozkien hitzarmenak tramitatu eta izenpetuko dituzte Ikastegiek. Haietan jasoko dira betebeharrak eta eskubideak, hala erakunde

laguntzailearenak nola Ikastegiarenak berarenak. Hitzarmen horiek harrera egingo diete, gutxienez, araudi honen II. eranskinean zehazten den Hitzarmeneko klausulei.

2.– Praktikak Espainiako Estatutik kanpoko enpresa edo erakundeetan garatu behar direnean, Nazioarteko Hedakuntzako Errektoreordetzari jakinaraziko zaio. Ondoko atalean adierazten denaren arabera izenpetu ondoren, hitzarmenaren kopia bat igorriko zaio Akademia Antolakuntzako Errektoreordetzari eta beste bat Idazkaritza Nagusiari.

3.– PPA hitzarmenak tramitatzen hasi, eta haien edukia adostuko du erakunde laguntzailearekin. Bideratu beharreko hitzarmena eta dagokion eranskina bestelakoak izanez gero, PPAk berriazko erabaki batez egiaztatuko du haren edukia araudi honetara egokitzen dela.

4.– Hitzarmenak dekanoeak eta zuzendariak sinatuko dituzte Ikastegi bateko ikasleei eragiten badiete. Campus bereko hainbat ikastegiri eraginez gero, Campuseko errektoreordeak sinatu beharko ditu, edo errektoreordeak eta ikastegietako dekanok eta zuzendari guztiek. Hitzarmenak aintzat hartzen baditu Campus bat baino gehiago, Akademia Antolakuntzako Errektoreordetzari dagokio tramitazioa, ukituriko Ikastegiek hala eskatuta, eta errektoreordeak, errektorearen ordean, eta ukituriko Ikastegietako dekanoeak edo zuzendariak sinatuko dute.

28. artikulua.– Irakaslana banatzea.

Ukituriko sailletako zuzendariak dekanoei eta zuzendariari, edo hauek izendatzen dituztenei, proposatuko diete, Ikastegi bakoitzak onartuko duen prozedurari jarraiki, praktika-orduak sailletako irakasleen artean nola banatu, matrikulatu diren ikasleen kopuruaren arabera.

II. SEKZIOA

GRADUKO KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK CURRICULUMETIK KANPO

29. artikulua.– Praktiketarako aukera.

Curriculumetik kanpoko praktikak egin ahal izateko, ikasleak bere tituluaren 120 kreditu eduki beharko ditu gaindituta.

30. artikulua.– Antolakuntza, koordinazioa eta kudeaketa.

Praktika hauen antolakuntza, koordinazio eta kudeaketarako 25. artikulua xedaturiko guztia aplikatuko da.

31. artikulua.– Tutoreak izendatzea.

1.– Ikastegi bakoitzak zehatuko du curriculumetik kanpoko praktika akademikoen programetan parte hartzen duten ikasleei tutorea esleitzeko prozedura. Programarako eskola-orduak banatuta dituzten Salletara atxikitako irakasleen artean aukeratuko dira tutoreak.

2.– Ikastegiko idazkariak tutore bakoitzak ikasturtean tutoretzapean izandako praktikak egiaztatuko ditu, meritu edo aitortza gisa balioa izan dezaten.

32. artikulua.– Hitzarmenen tramitazioa eta izenpetzea

1.– PPA hitzarmenak tramitatzen hasi, eta haien edukia adostuko du erakunde laguntzailearekin. Bideratu beharreko hitzarmena eta III. eranskinaren eredia bestelakoak izanez gero, PPAk berriazko erabaki batez egiaztatuko du haren edukia araudi honetara egokitzen dela.

2.– Erakunde laguntzailearen ordezkari eskudunak, horretarako ahalmena duen zuzendaritza-edo dekanotza-taldeko pertsona batek eta praktika egingo duen ikasleak hitzarmena sinatuko dute, horrekin ados daudela adierazita.

33. artikulua.– ECTS kredituak ikasleei aitortzea.

Araudi honen 4.b) artikulua aurreikusi duenari jarraiki, ikasleak UPV/EHU ikasten ari diren titulazioaren Ikasketa Planean hala aurreikusi duenean, hautazko kredituak onartu ahal izango zaizkie curriculumetik kanpo egindako praktiken ordainetan.

Nolanahi ere, Araudiak Gradu ikasketetako kredituen aitortze eta transferentziaren gainean xedaturikoari jarraiki arautuko da praktika hauen maila horretako onarpena.

Curriculumetik kanpoko praktika akademikoen kredituak aitortzekotan, ECTS kreditu bat emango da 25 praktika-orduren truke.

1393/2007 Errege Dekretuaren aurreko antolamenduaren arabera araututako irakaskuntzei dagokienez, horiek erabat agortu arte, curriculumetik kanpoko praktikak egitearen truke eskura daitezkeen aukera askeko kredituak amortizatuko dira, dagokion ikasturtean indarrean dagoen Gradu, Lehenengo eta Bigarren Zikloko Irakaskuntzetarako Kudeaketa Arautegiak ezarritakoaren arabera.

34. artikulua.– Arauetara igortzea.

II. sekzio honetan gradu curriculumetik kanpoko praktiketarako xedatu dena kaltetu gabe, Gradu curriculum barruko praktikei begira aurreikusi diren arauak aplikatuko dira, haren berezitasunari egokituko zaion guztian.

III. SEKZIOA

KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK UNIBERTSITATE-MASTERRETAN

35. artikulua.– Praktiketarako aukera.

Unibertsitate-masterretako ikasleek kanpoko praktika akademikoak egin ahal izango dituzte, dagokien ikasketa-planean eginiko aurreikuspenen arabera edo, hala bada, titulazioaren arduradunak prestaturiko plangintzari jarraiki.

36. artikulua.– Antolakuntza, koordinazioa eta kudeaketa.

1.– Ikastegiak eta, hala behar izanez gero, unibertsitate-institutuak dira kanpoko curriculum-praktiken antolakuntza, koordinazio eta kudeaketaren arduradunak eta, dekanoren edo zuzendariaren proposamenari jarraiki, jarduera hauek eta Unibertsitate Masterretako Batzorde Akademikoekin lan egiteko era arautuko dituzten barne-arau orokorrak onartuko dituzte.

2.– Masterreko Batzorde Akademikoak izendatuko du, bere kideen artean, Praktiken Programa Arduraduna (PPA), aurreko atalean aipaturiko barne-arau orokorretan beste prozedura bat zehazten denean izan ezik.

37. artikulua.– Tutoreak izendatzea.

Tutorea Masterrari atxikiriko UPV/EHUko irakaslea izango da, eta aurreko atalean aipaturiko barne-arau orokorren edo, halakorik ez badago, Masterreko Batzorde Akademikoak zehazturiko irizpideen arabera hautatuko da.

38. artikulua.– Hitzarmena tramitatzea eta izenpetzea.

1.– Unibertsitate Masterren onarpen eta kudeaketarako arau berezietan eginiko aurreikuspenen arabera izapidetu eta izenpetuko dira irakaskuntza hauetako hitzarmenak. Haien edukia II. eranskinaren ereduaren arabera egokituko da.

2.– Praktika egingo duen ikasleak agiri bat izenpetuko du, bere adostasunaren froga gisa, XI. eranskinaren ereduaren arabera.

39. artikulua.– ECTS kredituak ikasleei aitortzea.

Araudi honen 4.b) artikulua aurreikusi duenari jarraiki, ikasleak UPV/EHU ikasten ari diren titulazioaren Ikasketa Planean hala aurreikusi duenean, hautazko kredituak onartu ahal izango zaizkie curriculumetik kanpo egindako praktiken ordainetan.

Nolanahi ere, Araudiak Master-ikasketetako kredituen aitortze eta transferentziaren gainean xedaturikoari jarraiki arautuko da praktika hauen maila horretako onarpena.

Curriculumetik kanpoko praktika akademikoen kredituak aitortzekotan, ECTS kreditu bat emango da 25 praktika-orduren truke.

40. artikulua.– Jarduera profesionalerako gaitasuna ematen duten masterrak.

Jarduera profesional arautuak egiteko gaitasuna ematen duten unibertsitate-masterren kanpoko praktika akademikoei araudi honen II. sekzioko artikulua aplikatuko zaizkie.

41. artikulua.– Arauetara igortzea.

III. sekzio honetan unibertsitate-masterren curriculumetik kanpoko praktiketarako xedatu dena kaltetu gabe, Gradu praktiketarako aurreikusitako arauak aplikatuko dira haren berezitasunerako egokia dena aintzat hartuta.

IV. SEKZIOA

KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK BEREZKO IKASKETETAN

42. artikulua.– Praktiketarako aukera.

Berezko ikasketetako ikasleek kanpoko praktika akademikoak egin ahal izango dituzte, dagokien ikasketa-planean eginiko aurreikuspenen arabera edo, hala bada, titulazioaren arduradunak prestaturiko plangintzari jarraiki.

43. artikulua.– Antolakuntza, koordinazioa eta kudeaketa.

Berezko ikasketetako zuzendari akademikoak dira praktika mota hauen antolakuntza, koordinazio eta kudeaketaren arduradunak. Hau da, Praktiken Programa Arduraduna (PPA), Batzorde Akademikoak egiteko horri begira beste pertsona bat ez badu berriaz izendatu.

44. artikulua.– Tutoreak izendatzea.

Berezko ikasketa bakoitzeko zuzendari akademikoak zehaztuko du curriculumetik kanpoko praktika akademikoetako programa batean esku hartuko duten ikasleen tutorea izendatzeko prozedura, bertako irakasleen artean.

45. artikulua.– Hitzarmenak tramitatzea eta izenpetzea.

1.– Berezko ikasketaren araudi berezian eginiko aurreikuspenen arabera tramitatu eta izenpetuko dira irakaskuntza hauetako hitzarmenak. II. eranskinaren eredian egokituko da haien edukia.

2.– Erakunde laguntzailearen ordezkari ahaldun baten eta ikasketak proposatu dituen unibertsitate-organo edo -egituraren ordezkariaren artean izenpetuko da hitzarmena. Salbuespen gisa, dagokion batzordeak hitzarmena sinatzeko baimena eman ahal izango dio tituluaz arduratzen den irakasleari.

3.– Praktika egingo duen ikasleak agiri bat izenpetuko du, bere adostasunaren froga gisa, XI. eranskineko ereduaren arabera.

46. artikulua.– ECTS kredituak ikasleei aitortzea.

Araudi honen 4.b) artikulua aurreikusi duenari jarraiki, ikasleak UPV/EHU ikasten ari diren titulazioaren Ikasketa Planean hala aurreikusi duenean, hautazko kredituak onartu ahal izango zaizkie curriculumetik kanpo egindako praktiken ordainetan.

Nolanahi ere, Berezko ikasketetako kredituen aitortze eta transferentziaren gainean xedaturikoari jarraiki arautuko da praktika hauen maila horretako onarpena.

Curriculumetik kanpoko praktika akademikoen kredituak aitortzekotan, ECTS kreditu bat emango da 25 praktika-orduren truke.

XEDAPEN OSAGARRIA

Praktika akademikoak Doktoretzan. Dagokien lankidetzeta-hitzarmenean zehaztuko diren aurreikuspenen arabera arautuko dira Doktoretzarako ikasketekin lotu ahal izango diren kanpoko praktika akademikoak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengoa.– Honako bi faktore hauen baturaren emaitza izango da curriculumetik kanpoko praktiken irakasle tutorearen irakats-betebeharren aitortzea: Tutoretzapean harturiko ikasleen kopurua bata, eta tutoretza-orduen guztizko kopurua bestea.

1.– Honako hauek izango dira haztatze-faktoreak: 0,05, ikasle kopururako, eta 0,01, tutoretza-orduen guztizko kopururako, zati 25.

2.– Hiru kreditu aitortuko zaizkio gehienez tutore bakoitzari ikasturte batean.

3.– Aitortze hau bigarren ikasturtean gauzatuko da, hau da, jarduera gauzatu denaren ondokoan.

Bigarrena.– Desagertzearen dauden irakaskuntzen kasuan, graduako praktiketarako zehaztutako arau-emaileak bideratuko dira, haien berezitasunari egokituko zaion guztian.

Hirugarrena.– Araudi honen aurretik sinaturiko hitzarmenek indarrean iraungo dute, haietan aurreikusitakoaren arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe gelditzen da, honenbestez, Hezkuntza Lankidetzaren Programen Araudia, Akademia Antolakuntzako errektoreordeak 2007ko irailaren 13ko ebazpena bitartez argitaratua (2007ko urriaren 18ko EHAA, 201. zk.).

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau EHAAren argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak onartu ondoren.

I. ERANSKINA
PRESTAKUNTZA PROIEKTUA

...../..... **IKASTURTE AKADEMIKOA**

Jn./and.

(Tutorearen izen-abizenak)

Tutore gisa

Jn./and.

(Instruktoarearen izen-abizenak)

.....ren (erakunde laguntzailea) ordezkari gisa

Honako hau da UPV/EHUren eta Erakunde horren arteko Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenean jasotako informazioa:

- 1.- UPV/EHUK eskainitako irakaskuntzak:
- 2.- Prestakuntza-jarduerak egiteko lekua:
- 3.- Erakundeko instruktorea:
- 4.- Ikasketa-tutorea:.....
- 5.- Praktiken Programaren Arduraduna (PPA):
- 6.- Hezkuntza-helburuak:

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO OINARRIZKO GAITASUNAK:

1.-
2.-
(...)

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN GENERIKOAK:

1.-
2.-
(...)

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

1.-
2.-
(...)

7.- Garatu beharreko jarduerak edo zereginak:

Garatu beharreko jarduera edo zereginen azalpena
1.-
2.-
(...)

8.- Praktiken Programaren iraupena:

_____ (e)ko _____ (e)tik _____ (e)ra (urtea/hilabetea/eguna)

9.- Praktikaren ordutegia:

Goizez eta/edo Arratsaldez

10.- Ordu kopuru osoa: _____

11.- Hala badagokio, finantzaketa-modua:

- a) Ikasleentzako Laguntza Poltsa, Erakundeak ordaindu beharrekoa: _____ €
 b) Ordaintzeko modua: Erakundeak zuzenean ordainduko die ikasleei ezarritako kopurua, egoki iruditzen zaion moduan.

12.- Ikasleen zerrenda (*ikasle bat baino gehiago direnean; kasu horretan, horietako bakoitzaren tutorea eta instruktorea adierazi beharko dira*):

Ikasleak (NAN, abizenak eta izena)	Ikasketa-tutorea	Instruktorea

Aldeek bi ale izenpetzen dituzte, _____ (a)n, 2012ko _____ ren _____ (e)(a)n

UPV/EHUren IZENEAN

ERAKUNDEAREN IZENEAN

(Sinadura eta zigilua)

2012ko azaroaren 12a, astelehena

II. ERANSKINA

HEZKUNTZA LANKIDETZARAKO HITZARMENA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN ARTEAN TITULUKO IKASLEEK KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGITEKO (gradu curriculum-praktikak eta masterretarako eta berezko irakaskuntzetarako curriculumeko eta curriculumetik kanpoko praktikak)

.....(a)n,(e)koren.....(e)(a)n

BILDURIK

Alde batetik, jn/and (*Hitzarmena izenpetu behar duten organoen izen-deiturak, ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren araudiko 27.4; 38 eta 45.2 artikuluen arabera*), Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen izenean (UPV/EHU, aurrerantzean), gisa jardunez eta indarrean dagoen Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudi Erregulatuzaileak ezarritakoaren arabera.

Bestetik, jn/and (*hitzairena egiten den erakundeko ordezkariaren izen-deiturak*),ren izenean (erakunde laguntzailea, aurrerantzean), gisa jardunez etaren arabera.

Hezkuntza-lankidetzarako hitzarmen hau izenpetzeko legez behar den gaitasuna elkarri onartuta,

ADIERAZI DUTE

Lehenengoa.- UPV/EHUren helburuetako bat da “*Kalitatezko goi-mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen prestakuntza osorako eta lanerako beharko dituzten gaitasunak ziurtatzeko*”.

Bigarrena.- Erakunde laguntzailea... (*azaldu erakunde horrek prestakuntza-jarduera honetan duen interesa*)

Hirugarrena.- Kanpoko praktika akademikoak ikasleen prestakuntzara bideratutako jarduerak dira, Unibertsitateak gainbegiratzen dituena, eta helburutzat dute aukera ematea ikasleei prestakuntza akademikoan eskuratu dituzten ezagutzak aplikatu eta osatzeko, beharrezko gaitasunak eskura ditzaten lan munduan aritzeko, lana bilatzeko eta beren ekiteko gaitasuna areagotzeko.

Laugarrena.- Zehazki, curriculum-praktikak dagokion Ikasketa Planaren barneko jarduera akademikotzat hartzen dira. (*egokitu atal hau masterretarako eta berezko irakaskuntzetarako*)

Bosgarrena.- UPV/EHUK titulua/ak eskaintzen ditu, eta erakunde laguntzaileak sektorean/etan lan egiten du.

Seigarrena.- Unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretuko 7. artikulua arabera, “*kanpoko praktikak egiteko, unibertsitateek eta, hala*

dagokionean, haiei lotuta praktikak kudeatzen dituzten erakundeek, Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenak izenpetuko dituzte (...) erakunde laguntzaileekin (aurreikuspen bera ezartzen da Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Araudian).

Adierazitakoagatik, bi aldeek

ADOSTU DUTE

Bakarra.- Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen hau izenpetzea, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Helburua

Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen honen helburua da UPV/EHUko ikasleek aipatutako erakunde laguntzailean egingo dituzten curriculum-praktika akademikoak arautzea (*egokitu atal hau masterretarako eta berezko irakaskuntzetarako*), azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretuak eta Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Araudiak ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.- Praktikak egitea, lekua eta programa

Praktikak egiteko lekua hitzarmen honi erantsitako I. eranskinean adieraziko da.

Iraupena eta ordutegiak ezartzean, kontuan hartuko dira praktiken ezaugarriak eta (*erakundearen izena*)-k dituen aukerak, praktika-jarduerak ahalik eta eraginik txikiena izateko haren eguneroko lanean.

Dagokion ikasketa-planak ezarritakoa abiapuntutzat hartuta, tutorearen ardura izango da prestakuntza-proiektua egitea praktikak hasi aurretik. Proiektu horrek honako datu hauek zehaztuko ditu:

- Zer ikasketari dagokion praktika.
- Praktikak egingo diren erakundea eta tokia.
- Ikasketa-tutorea.
- Erakundeko instruktorea.
- Praktiken Programaren arduraduna.
- Ikasleen zerrenda, hala dagokionean.
- Hezkuntza-helburuak eta jarduerak.

Hirugarrena.- Harremana erakunde laguntzailearen eta ikaslearen artean

1.- Kanpoko praktika akademikoen prestakuntza-xedea dela-eta, ez dute lan-harreman bati dagokion betebeharririk izango, eta ezin izango dira lanpostu bati loturiko lan-prestazio baten ordezkotzat hartu.

2.- Era berean, ikasketak amaitzean ikaslea erakunde laguntzaileko langile bihurtzen bada, praktiketan emandako denbora ez da antzinasunari begira kontuan hartuko, eta ez du langilea proba-epetik igarotzetik salbuetsiko, aplikatu beharreko lan-hitzarmenak bestelakorik adierazi ezean.

Laugarrena.- Praktiketarako instruktorea

- 1.- Erakunde laguntzaileak instruktore bat izendatuko du ikasle bakoitzarentzat, eta haren eginkizuna izango da prestakuntza-jarduerak antolatzea, Praktiken Programaren Arduradunaren oniritziarekin eta ikaslearen tutorearekin batera.
- 2.- Erakunde laguntzaileak izendatuko duen instruktorea erakundeari loturiko pertsona bat izango da, eta lan-esperientzia eta tutoretza eraginkor bat egiteko behar diren ezagutzak izango ditu. Instruktorea eta Unibertsitatearen tutoretza-lanak egingo dituen pertsona ez dira bat eta bera izango.
- 3.- Instruktoreak Praktiken Programaren Arduradunaren adostasuna beharko du, eta "venia docendi"-aren aitortza adieraziko du, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Araudian finkatutako prozeduraren arabera gauzatuko dena.

Bosgarrena.- Instruktorearen eskubideak eta betebeharrak

- 1.- Erakunde laguntzaileko instruktoreak eskubide hauek izango ditu:
 - a) Bere laguntza-lana aitortua izateko eskubidea, aurreko klausularen 3. zenbakian jasota dagoen moduan.
 - b) Kanpoko praktikak arautzen dituen araudiari eta haien Prestakuntza Proiektuari eta garapen-baldintzei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
 - c) Unibertsitatera jotzeko eskubidea, informazioa eta laguntza eskuratzeko bere eginkizunetarako.
 - d) Unibertsitate-instalazio eta -zerbitzuak erabiltzeko eskubidea (liburutegiak, mintegiak, etab.), bere etengabeko prestakuntzari begira.
- 2.- Gainera, betebeharrak hauek izango ditu:
 - a) Ikasleari harrera egitea eta egin beharreko jarduerak Prestakuntza Proiektuan zehaztutakoaren arabera antolatzea.
 - b) Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea eta praktikaren garapena bideratu eta kontrolatzea, elkarrekiko errespetuan oinarrituriko harreman baten bitartez eta ikaskuntzarekiko konpromisoarekin.
 - c) Bere erakundearen antolakuntza eta funtzionamendua azaltzea ikasleari, baita dagozkion araudiak ere, segurtasun eta lan-arriskuen arlokoak bereziki.
 - d) Hezkuntza-lankidetzarako hitzarmen honetan zehaztutako jardueren garapena koordinatzea Unibertsitateko tutorearekin, kontuan izanik praktikaren garapen egokiari begira prestakuntza-proiektuan egin beharreko aldaketak. Gainera, praktikan zehar sor daitezkeen gorabeheren berri eman eta gorabehera horiek konpontzea, eta azterketak egiteko baimenak kontrolatzea.
 - e) Amaierako txostena egitea, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Araudiko IV. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.
 - f) Praktikak egiteko ikasleak behar duen prestakuntza osagarria eskaintzea.
 - g) Praktikak egiteko ikasleak behar dituen bitarteko materialak ematea.
 - h) Giro egokia sortzea ikasleak proposamenak egiteko: berrikuntzari, hobekuntzari eta ekintzaitzari begira eginiko proposamenak.

- i) Erakunde laguntzailearen atek zabaltzea UPV/EHUko tutoreari, bere eginkizunari dagozkion helburuak bete ditzan.
- j) Isilpean gordetzea instruktore gisa ikasleari buruz eskura dezakeen informazio oro.
- k) Ikasleari laguntzea erakundean diharduen bitartean, eta praktika-jardueretan sor daitezkeen lan-gorabeherak konpontzea.

Seigarrena.- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

1.- Kanpoko praktika akademikoetan, ikasleek eskubide hauek izango dituzte:

- a) Praktikak iraun bitartean, unibertsitateko irakasle baten eta erakunde laguntzailean diharduen profesional baten tutoretza izateko eskubidea.
- b) Ebaluaziorako eskubidea, Unibertsitateak zehazturiko irizpideen arabera.
- c) Praktikak egin dituen erakunde laguntzailearen txostena jasotzeko eskubidea. Txosten horretan, zehazki aipatuko dira eginiko jarduera, haren iraupena eta, hala dagokionean, errendimendua, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Araudiko IV. eranskineko ereduaren arabera.
- d) Hala zehaztutako kasuetan, erakunde laguntzailearen ekarpen ekonomikoa jasotzeko eskubidea, ikasketetarako laguntza edo poltsa gisa.
- e) Jabetza intelektual eta industrialerako eskubidea, arloan arloko legediak ezarritako moduan, ikasleak lagapen- edo transmisio-dokumentua izenpetu duenean izan ezik.
- f) Segurtasun eta lan-arriskuen prebentziorako araudiari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea. Erakunde laguntzaileak eman beharko du informazio hori.
- g) Beren jarduerak burutzeko eskubidea (arloan akademikoan, prestakuntza-arloan eta ordezkatzeko eta parte-hartze mailan), jarduera horien berri emanez alde aurretik erakunde laguntzaileari.
- h) Ezintasunen bat duten ikasleen kasuan, praktikak besteen baldintza berberetan egiteko eskubidea: sarbiderako, informaziorako eta ebaluaziorako eskubidea.
- i) Ezintasunen bat duten ikasleen kasuan, praktikak eta ezintasunetik eratorritako jarduerak eta egoera pertsonalak bateratzeko eskubidea.

2.- Era berean, kanpoko praktika akademikoak egin bitartean, betebeharrak hauek izango dituzte ikasleek:

- a) Unibertsitateak kanpoko praktikak arautzeko indarrean duen araudia betetzea.
- b) Praktiken Prestakuntza Proiektua ezagutzea eta betetzea, aintzat harturik erakunde laguntzaileak izendaturiko instruktorearen oharrak, unibertsitateko tutorearen gainbegiradapean.
- c) Praktikak iraun bitartean, harremanetan egotea unibertsitateko tutorearekin eta gerta daitezkeen zehazki gorabeheraren berri ematea. Gainera, eskatzen zaizkien dokumentuak eta txostenak aurkeztea (jarraipen-txostenak, amaierako memoria...).
- d) Adostutako egunean lanari ekitea erakunde laguntzailean, hezkuntza-proiektuan aurreikusitako ordutegia betetzea eta erakundean indarrean dauden arauak errespetatzea (funtzionamenduko, segurtasun-arloko eta lan-arriskuen prebentziorako arauak).
- e) Hezkuntza Proiektua garatzea eta erakunde laguntzailearekin adostutako jarduerak egoki betetzea, proiektuan zehaztutako lan-lerroen arabera.

- f) Praktiken amaierako txostena eta tarteko txostena, hala dagokionean, egitea, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUREN Araudiko V. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.
- g) Erakunde laguntzaileari buruzko informazioa isilpean gordetzea eta haren jardueren gaineko lanbide-sekretua mantentzea, praktikek iraun bitartean eta praktikak amaitu ondoren.
- h) Errespetuz jokatzeko erakunde laguntzailearen politikarekiko, UPV/EHUREN ospea babestuz uneoro.
- i) Indarrean dagoen araudian ezarritako beste betebeharrak kontuan hartzea.

3.- Aurreko atalean aurreikusitako betebeharrak betetzen ez badira, bertan behera utzi ahal izango da praktika. Hori horrela, horren berri emango dio UPV/EHUK edo enpresak hitzarmen honen bidez sortutako Jarraipen Batzordeari, eta batzorde horrek 10 eguneko epea izango du praktika aldeztu aurretik bertan behera uzteko egokitasunari buruz erabakitzeko.

4.- Ikasleak huts egin ahal izango du praktika azterketarik egin behar izanez gero, eta hiru egun lehenago emango dio horren berri instruktoreari. Arrazoi akademikoek edo beste era batekoek eragindako hutsegiteak lehenbailehen jakinarazi beharko zaizkio instruktoreari edo tutoreari, eta tutorearen baimena beharko dute, hala behar izanez gero.

Zazpigarrena.- Instalazioak eta baliabideak

Erakunde laguntzaileak bere instalazioak eta baliabideak eskainiko ditu praktikak egiteko, eta zenbat ikasle har ditzakeen zehaztuko du.

Zortzigarrena.- Erantzukizunak eta aseguruak

1.- UPV/EHUK erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat du, ikasleek praktiketan eragin ditzaketan kalteei aurre egiteko.

2.- Unibertsitateak eta ikasleek ez dute inolako erantzukizunik izango balizko kalteen aurrean, erakunde laguntzaileko instruktoreak praktiken programatik kanpo emandako agindu baten ondorio izanez gero.

3.- Praktikak egiteko, ezinbestekoa izango da 28 urtetik gorako ikasleek aseguru bat kontratatzea. Aseguru osagarri hori UPV/EHUK hitzartuta duen «CUM LAUDE» istripu-poliza kolektiboa izan daiteke, edo beste erakunde batek eskaintzen duen beste aseguruaren bat, baldin eta, gutxienez, UPV/EHUREN bidez eskaintzen diren kontzeptuak («CUM LAUDE») estaltzen baditu. Egokia irudituz gero, aipatutako adina bete aurretik ere kontratatu ahal izango da aseguru hori.

4.- Eskola-aseguruak Berezko Ikasketetako ikasleak aintzat hartzen ez dituzenez, sor daitezkeen halabeharrak Berezko Tituluaren zuzendari akademikoak sinatutako polizen bidez aseguratu dira.

5.- UPV/EHUREKIN hitzarmena duten atzerriko unibertsitateetatik etorrira erakunde laguntzailean praktiketan diharduten ikasleek istripu-poliza bat izan beharko dute, «CUM LAUDE» polizaren estaldura berberetara gutxienez.

Bederatzigarrena.- Poltsa edo laguntza

Ikasleek ez dute inolako diru-kopururik jasoko praktikak egiteagatik.

Nolanahi ere, kanpoko praktika bururatzegatik ikasleari ikasketetarako burtsa edo laguntza bat abonatu behar bazaio, erakundeak indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-obligazioak bete beharko ditu.

Hamargarrena.- Ikasleen datuak babestea

Praktikak enpresetan egiten dituzten ikasleen datuak Hitzarmen honetan ezarritako helburuetarako erabiliko dira soil-soilik.

Hamaikagarrena.- UPV/EHUn beste konpromiso batzuk

1.- Aurretik aipatutakoen kalte gabe, UPV/EHUK bere gain hartzen ditu konpromiso hauek ikasleei dagokienez:

- a) Ikasleei azaltzea zertan eragiten dien Hitzarmen honek.
- b) Ikasleek Hitzarmen honek ezartzen dizkien betebeharrak onartzea, baita aplikatu daitezkeen araudia ere.
- c) Ikasleek beren datuen erabilera espresuki onartzea, aurreko Klausulan ezarritako xedeetarako.

2.- Aurrekoaren ondorioz, ikasle bakoitzak izenpetutako dokumentuaren kopia bana emango dio UPV/EHUK erakunde laguntzaileari.

Hamabigarrena.- Jarraipen Batzordea

1.- Jarraipen Batzorde bat eratuko da, Ikastegiko edo tituluaren ardura duten Berezko Ikasketen bi ordezkariak eta erakunde laguntzailearen beste bi kidek osatuta. Horren egitekoa izango da praktikak egitean edo hitzarmena betetzean sor daitezkeen gorabeherari buruzko erabakiak hartzea.

2.- Batzorde hori eratzean, sinatzaileak batzordeburu izango dira txandaka, eta UPV/EHUri egokituko zaio hasierako txanda.

Hamahirugarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

1.- Hitzarmen honek indarraldi mugagabea izango du. Dena dela, alde sinatzaileetako edozeinek haren amaiera eskatu ahal izango du, eskaera hori hitzartutakoak ondorioz ez izatea nahi den ikasturtearen aurreko ikasturteko martxoaren baino lehen eginez gero.

2.- Hitzarmenaren amaiera idatziz eskatuko da, eta ez du inolako eraginik izango jada abian dauden praktiken garapenean, Seigarren Klausulan praktikak aldeztu aurretik bertan behera uzteari dagokionez ezarritakoaren kalterik gabe.

Eta aurrekoarekin ados daudela adierazteko, hezkuntza-lankidetzarako hitzarmen honen bi kopia sinatu dituzte aldeek, goiburuan adierazitako lekuan eta datan.

UPV/EHUn IZENEAN

ERAKUNDEAREN IZENEAN

(Sinadura eta zigilua)

(Sinadura eta zigilua)

III. ERANSKINA

**HEZKUNTZA LANKIDETZARAKO PROGRAMA BAT GARATZEKO HITZARMENA UPV/EHUko
 IKASTEGIAREN ETA
 ERAKUNDEAREN ARTEAN**

..... jn./and.
 (Zuzendaritza/Dekano-taldeko kidea)
 Eta jn./and., (erakundea)-ko
 (kargua)

Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen hau izenpetu dute, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretuak eta Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Araudiak ezarritakoaren arabera.

- 1.- Programan parte hartzen duen ikaslea:
- 2.- Erakunde laguntzaileko instruktorea:
- 3.- Ikastegiko tutorea:
- 4.- Praktiken programaren arduraduna:
- 5.- Prestakuntza-proiektua:
 - a) Hezkuntza-helburuak:

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO OINARRIZKO GAITASUNAK:
1.- 2.- (...)
IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN GENERIKOAK:
1.- 2.- (...)
IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK:
1.- 2.- (...)

- b) Garatu beharreko jarduerak edo zereginak:

Garatu beharreko jarduera edo zereginen azalpena
1.-
2.-
(...)

- 6.- Non egingo den jarduera:
- 7.- Programaren iraupena eta ordu-kopurua:

8.- Bertan behera utzi ahal izango da praktika, baldin azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretuaren 9. artikulua ikasleei ezartzen dizkien betebeharrak betetzen ez badira.

Hori horrela, horren berri emango dio UPV/EHUK edo enpresak hitzarmen honen bidez sortutako Jarraipen Batzordeari, eta batzorde horrek 10 eguneko epea izango du praktika alde aurretik bertan behera uzteko egokitasunari buruz erabakitzeko.

9.- Ikasleak huts egin ahal izango du praktika azterketarik egin behar izanez gero, eta hiru egun lehenago emango dio horren berri instruktoreari.

Arrazoi akademikoek edo beste era batekoek eragindako hutsegiteak lehenbailehen jakinarazi beharko zaizkio instruktoreari edo tutoreari, eta tutorearen baimena beharko dute, hala behar izanez gero.

10.- Ikaslearentzako Laguntza Poltsaren zenbateko osoa eurokoa da hileko (1). Kopuru horri dagokion PFEZ atxikipena aplikatuko dio enpresak, baita legez ezarritako beste atxikipenak ere, indarrean dagoen legediaren arabera.

11.- Erakundearen ekarpena kudeaketa-gastu gisa UPV/EHUri: euro (1).

12.- Praktikak enpresetan egiten dituzten ikasleen datuak Hitzarmen honetan ezarritako helburuetarako erabiliko dira soil-soilik.

Ikasleak baimena emango die Unibertsitateari eta erakunde laguntzaileari bere datuak aurreko paragrafoan zehaztutako moduan erabiltzeko.

13.- Edonola ere, aldean eskubide eta betebeharrak dagokienez, kontuan izango da Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUraren Araudiak ezarritakoa.

14.- Jarraipen Batzorde bat eratuko da, Ikastegiko edo tituluaren ardura duten Berezko Ikasketen bi ordezkari eta erakunde laguntzailearen beste bi kidek osatuta. Horren egitekoa izango da praktikak egitean edo hitzarmena betetzean sor daitezkeen gorabeherari buruzko erabakiak hartzea.

Batzorde hori eratzean, sinatzaileak batzordeburu izango dira txandaka, eta UPV/EHUri egokituko zaio hasierako txanda.

15.- Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenaren indarraldiak bat egingo du praktikaldiarekin, eta, edonola ere, Ikasleen kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUraren Arautegiaren 5.3 artikulua ezarritako gutxienezko baldintzak bete beharko ditu.

IKASTEGIAREN IZENEAN

ERAKUNDEAREN IZENEAN

IKASLEA

Sinadura

Sinadura

Sinadura

(1) Erakunde laguntzaileak ez badu inolako kopururik jartzen poltsa edo kudeaketa-gastu gisa, "Hutsik" utziko da 10. edo 11. puntua.

IV. ERANSKINA
INSTRUKTOREAREN AMAIERAKO TXOSTENA

I.- DATU OROKORRAK

Praktikaren izena	
Instruktoarearen izen-deiturak	
Erakunde laguntzailea	
Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslea matrikulatuta dagoen titulua	
Tutorearen izen-deiturak	

II.- GARATUTAKO JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Jarduera egin den Erakundearen saila	
Praktika-aldiaren datak	
Ordu-kopurua	
Jardueraren deskribapen laburra	

III.- GARATUTAKO JARDUERAK

Garatutako jardueren deskribapena
1.-
2.-
(...)

IV.- INSTRUKTOREAREN BALORAZIOA

BALORATU BEHARREKO PARAMETROAK (1etik 5era bitarteko balorazioa, non 5 bikain den eta 1 eskas)	1	2	3	4	5
Gaitasun teknikoa					
Ikasteko gaitasuna					
Lanak administratzea					
Ahoz eta idatziz komunikatzeko trebetasuna. Ezintasun bategatik hitz egiteko zailtasunak dituzten ikasleen kasuan, trebetasun honetarako autonomia maila adierazi beharko da, baita baliabide tekniko eta/edo giza baliabideren bat behar duten ere.					
Erantzukizun-zentzua					
Egokitzeko erraztasuna					
Sormena eta ekimena					
Inplikazio pertsonala					

2012ko azaroaren 12a, astelehena

Motibazioa					
Kritikak hartzeko modua					
Puntualtasuna					
Harremanak lan-ingurunearekin					
Taldean lan egiteko gaitasuna					
Egoki irizten diren beste alderdi batzuen aipamena					
PRAKTIKAREN BALORAZIO GLOBALA	1	2	3	4	5

(Data eta instruktorearen sinadura)

V. ERANSKINA
IKASLEAREN AMAIERAKO TXOSTENA

I.- DATU OROKORRAK

Praktikaren izena	
Erakunde laguntzailea	
Praktika egin den Erakundearen saila	
Praktiken Programaren Arduradunaren (PPA) izen-deiturak	
Instruktorearen izen-deiturak	
Tutorearen izen-deiturak	

II.- IKASLEAREN DATUAK

Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslea matrikulatuta dagoen titulua	
Ikasturte akademikoa	

III.- AMAIERAKO TXOSTENA

JARDUEREN DESKRIKAPEN XEHEA ETA HAIEN BALORAZIOA <i>(Balorazioa egitean, kontuan hartuko dira unibertsitate-ikasketei dagokienez eskuratutako ezagutzak eta gaitasunak)</i>				
Zereginen zerrenda:	Oso ona	Ona	Eskasa	Txarra
1.-				
2.-				
(...)				
Hala dagokionean, praktiketan sortutako arazoen azalpen xehea <i>(Arazoen zerrenda)</i>	Arazoa nola konpondu den			
Praktikaren ekarpena ikaskuntzari dagokionez				
Hobetzeko iradokizunak				
Amaitzean, praktikak zuzen edo zeharka eragin dezake lan-kontratu bat egitea enpresa horretan edo horri lotutako beste batean?	Bai		Ez	
PRAKTIKAREN EBALUAZIO GLOBALA	Oso ona	Ona	Eskasa	Txarra

(Data eta ikaslearen sinadura)

VI. ERANSKINA

IKASLEAREN TUTOREAREN AMAIERAKO BALORAZIO TXOSTENA ETA ZIURTAGIRI EGIAZTATZAILEA**I.- DATU OROKORRAK**

Praktikaren izena	
Tutorearen izen-deiturak	
Erakunde laguntzailea	
Instruktorearen izen-deiturak	

II.- IKASLEAREN DATUAK

Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslea matrikulatuta dagoen titulua	
Ikasturte akademikoa	

III.- PRAKTIKEN PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Praktika egin den Erakundearen saila	
Praktika-aldiaren datak	
Ordu-kopurua	

IV.- EGINDAKO JARDUERA EDO EGITEKOEN ZERRENTA

Egindako jarduera edo lanen azalpena	Eskuratutako gaitasunak eta ezagutzak
1.-	
2.-	
(...)	

Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUren Arautegiaren 16. artikulua aplikatuta eta instruktoreak eta ikasleak igorritako txostenak ikusita, (**positiboki/negatiboki**) ebaluatzen dut haren parte-hartzea praktiken programan, eta ziurtagiri hau igortzen du, horien egiaztatgiri gisa.

(Data eta tutorearen sinadura)

2012ko azaroaren 12a, astelehena

VII. ERANSKINA

KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK UPV/EHUko ANTOLAKUNTZA UNITATE BATEAN EGITEKO BAIMENA

..... jn/and
ko errektoreordea
 BAIMENA ematen diot

Antolakuntza Unitateari Hezkuntza Lankidetzarako Programa hau eskaintzeko, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Araudiko arabera:

Praktikaren izena		
Praktikaren ordu-kopurua		
Jarduera egingo den lekua		
Ikasle hautagaia zer titulutan matrikulatuta dagoen, eta matrikula-ikastegia		
a) ikastegiko titulua	
b) ikastegiko titulua	
Ikaslearentzako laguntza-poltsaren zenbateko osoa eurokoa izango da (1)		
Laguntza horren zenbatekoari aurre egiteko aurrekontu-kreditua eta CUM LAUDE aseguruaren kuota aurrekontu-aplikazio honetan eskura daitezke: (1)		
a)	BGU	
b)	PROGRAMA	
c)	KONTZEPTUA	
Zenbatekoa jarduera amaitzean ordainduko da, edo bi alditan, jarduerak sei hilabete baino gehiago iraunez gero (1)		
Ikasleen instruktorea erakunde laguntzailean:		

.....(a)n,.....(e)koren(e)(a)n

ANTOLAKUNTZA UNITATEAREN INSTRUKTOREAREN ONIRITZIA ERREKTOREORDEAREN ONIRITZIA
 ARDURADUNA

Sinadura

Sinadura

Sinadura

(1) Laguntza-poltsa gisa inolako kopururik ematen ez bada, "Hutsik" utziko da testua.

2012ko azaroaren 12a, astelehena

VIII. ERANSKINA

HEZKUNTZA LANKIDETZARAKO HITZARMENA UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA UPV/EHUren ANTOLAKUNTZA UNITATEAREN ARTEAN TITULUKO IKASLEEK KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGITEKO (gradu curriculum-praktikak eta masterretarako eta berezko irakaskuntzetarako curriculumeko eta curriculumetik kanpoko praktikak)

.....(a)n,(e)koren(e)(a)n

BILDURIK

Alde batetik, jn/and (*Hitzarmena izenpetu behar duten organoen izen-deiturak*), Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen izenean (UPV/EHU, aurrerantzean), gisa jardunez eta indarrean dagoen Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudi Erregulatzailerak ezarritakoaren arabera,

Bestetik, jn/and (*Hitzarmena izenpetu behar duen pertsonaren izen-deiturak*), antolakuntza-unitatearen izenean, gisa jardunez eta indarrean dagoen Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudi Erregulatzailerak ezarritakoaren arabera,

Hezkuntza-lankidetzarako hitzarmen hau izenpetzeko legez behar den gaitasuna elkarri onartuta

ADIERAZI DUTE

Lehenengoa.- UPV/EHUren helburuetako bat da “*Kalitatezko goi-mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen prestakuntza osorako eta lanerako beharko dituzten gaitasunak ziurtatzeko*”.

Bigarrena.- Antolakuntza Unitatea... (*azaldu unitate horrek prestakuntza-jarduera honetan duen interesa*)

Hirugarrena.- Kanpoko praktika akademikoak ikasleen prestakuntzara bideratutako jarduerak dira, Unibertsitateak gainbegiratzen dituena, eta helburutzat dute aukera ematea ikasleei prestakuntza akademikoan eskuratu dituzten ezagutzak aplikatu eta osatzeko, beharrezko gaitasunak eskura ditzaten lan munduan aritzeko, lana bilatzeko eta beren ekiteko gaitasuna areagotzeko.

Laugarrena.- Zehazki, curriculum-praktikak dagokion Ikasketa Planaren barneko jarduera akademikotzat hartzen dira. (*egokitu atal hau masterretarako eta berezko irakaskuntzetarako*)

Bosgarrena.- UPV/EHUK titulua/ak eskaintzen ditu, eta antolakuntza-unitateak sektorean/etan lan egiten du.

Seigarrena.- Unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretuko 7. artikulua araberak, “*kanpoko praktikak egiteko, unibertsitateek eta, hala dagokionean, haiei lotuta praktikak kudeatzen dituzten erakundeek, Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenak izenpetuko dituzte (...) erakunde laguntzaileekin, errege-dekretuaren 2.2 artikuluan aurreikusitakoak*”. Artikulu horren arabera, “*praktika akademikoak unibertsitatean edo erakunde laguntzaileetan egin ahal izango dira*” (aurreikuspen bera ezartzen da Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Araudian).

Adierazitakoagatik, bi aldeek

ADOSTU DUTE

Bakarra.- Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen hau izenpetzea, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Helburua

Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen honen helburua da UPV/EHUko ikasleek aipatutako antolakuntza-unitatean egingo dituzten curriculum-praktika akademikoak arautzea (*egokitu atal hau masterretarako eta berezko irakaskuntzetarako*), azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretuak eta Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Araudiak ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.- Praktikak egitea, lekua eta programa

Praktikak egiteko lekua hitzarmen honi erantsitako I. eranskinean adieraziko da.

Iraupena eta ordutegiak ezartzean, kontuan hartuko dira praktiken ezaugarriak eta (*antolakuntza-unitatearen izena*)-k dituen aukerak, praktika-jarduerak ahalik eta eraginik txikiena izateko haren eguneroko lanean.

Dagokion ikasketa-planak ezarritakoaren arabera, tutorearen ardura izango da prestakuntza-proiektu bat egitea, praktikak hasi aurretik. Proiektu horrek honako datu hauek jasoko ditu: Programa horretan, datu hauek adieraziko dira:

- Zer ikasketari dagokion praktika.
- Praktikak egingo diren erakundea eta tokia.
- Ikasketa-tutorea.
- Erakundeko instruktorea.
- Praktiken Programaren arduraduna.
- Ikasleen zerrenda, hala dagokionean.
- Hezkuntza-helburuak eta jarduerak.

Hirugarrena.- Harremana Antolakuntza Unitatearen eta ikaslearen artean

1.- Kanpoko praktika akademikoen prestakuntza-xedea dela-eta, ez dute lan-harreman bati dagokion betebeharririk izango, eta ezin izango dira lanpostu bati loturiko lan-prestazio baten ordezkotzat hartu.

2.- Era berean, ikasketak amaitzean ikaslea UPV/EHUko langile bihurtzen bada, praktiketan emandako denbora ez da antzintasunari begira kontuan hartuko, eta ez du langilea proba-epetik igarotzetik salbuetsiko, aplikatu beharreko lan-hitzarmenak bestelakorik adierazi ezean.

Laugarrena.- Praktiketarako instruktorea

- 1.- Antolakuntza Unitateak instruktore bat izendatuko du ikasle bakoitzarentzat, eta haren eginkizuna izango da prestakuntza-jarduerak antolatzea, Praktiken Programaren Arduradunaren oniritziarekin eta ikaslearen tutorearekin batera.
- 2.- Antolakuntza-unitateak izendatutako instruktoreak funtzionarioen mailako A edo B taldeko lanpostua beteko du edo administrazioko lan-kontratudunen II edo II taldekoa.
- 3.- Instruktoreak Praktiken Programaren Arduradunaren adostasuna beharko du, eta "venia docendi"-aren aitortza adieraziko du, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Araudian finkatutako prozeduraren arabera gauzatuko dena.

Bosgarrena.- Instruktorearen eskubideak eta betebeharrak

- 1.- Antolakuntza Unitateko instruktoreak eskubide hauek izango ditu:
 - a) Bere laguntza-lana aitortua izateko eskubidea, aurreko klausularen 3. zenbakian jasota dagoen moduan.
 - b) Kanpoko praktikak arautzen dituen araudiari eta haien Prestakuntza Proiektuari eta garapen-baldintzei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- 2.- Gainera, betebeharrak hauek izango ditu:
 - a) Ikasleari harrera egitea eta egin beharreko jardura Prestakuntza Proiektuan zehaztutakoaren arabera antolatzea.
 - b) Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea eta praktikaren garapena bideratu eta kontrolatzea, elkarrekiko errespetuan oinarrituriko harreman baten bitartez eta ikaskuntzarekiko konpromisoarekin.
 - c) Unitatearen antolakuntza eta funtzionamendua azaltzea ikasleari, baita dagozkion araudiak ere, segurtasun eta lan-arriskuen arlokoak bereziki.
 - d) Hezkuntza-lankidetzarako hitzarmen honetan zehaztutako jardueren garapena koordinatzea Unibertsitateko tutorearekin, kontuan izanik praktikaren garapen egokiari begira prestakuntza-proiektuan egin beharreko aldaketak. Gainera, praktikan zehar sor daitezkeen gorabeheren berri eman eta gorabehera horiek konpontzea, eta azterketak egiteko baimenak kontrolatzea.
 - e) Amaierako txostena egitea, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Araudiko IV. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.
 - f) Praktikak egiteko ikasleak behar duen prestakuntza osagarria eskaintzea.
 - g) Praktikak egiteko ikasleak behar dituen bitarteko materialak ematea.
 - h) Giro egokia sortzea ikasleak proposamenak egiteko: berrikuntzari, hobekuntzari eta ekintzailtzari begira eginiko proposamenak.
 - i) Antolakuntza-unitatearen atak zabaltzea UPV/EHUko tutoreari, bere eginkizunari dagozkion helburuak bete ditzan.
 - j) Isilpean gordetzea instruktore gisa ikasleari buruz eskura dezakeen informazio oro.
 - k) Ikasleari laguntzea antolakuntza-unitatean diharduen bitartean, eta praktika-jardueretan sor daitezkeen lan-gorabeherak konpontzea.

Seigarrena.- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

- 1.- Kanpoko praktika akademikoak egiten ari diren bitartean, ikasleek honako eskubide hauek izango dituzte:
- Praktikak iraun bitartean, unibertsitateko irakasle baten eta praktika bideratzen ari den antolakuntza-unitateko profesional baten tutoretza jasotzeko eskubidea.
 - Ebaluazioa jasotzeko eskubidea, Unibertsitateak zehazturiko irizpideen arabera.
 - Praktiken ondoko txostena jasotzeko eskubidea. Praktikak egin dituen antolakuntza-unitateak egingo du, eta berariaz zehaztuko dira hartan bideraturiko jarduera, haren iraupena eta, hala behar badu, errendimendua. Txostena egingo da Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUren Araudiko IV. eranskinaren ereduaren arabera.
 - Hala zehaztu den kasuetan, antolakuntza-unitateak, ikasketetarako laguntza gisa, finkatutako ekarpen ekonomikoa jasotzeko eskubidea.
 - Jabetza intelektual eta industrialerako eskubidea, arloan arloko legediak arautzen dituen baldintzetan, ikasleek eskubide horren lagapen edo transmisiorako dokumentua sinatu duten kasuetan izan ezik.
 - Segurtasun eta lan-arriskuen prebentziorako araudiaren gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, antolakuntza-unitateak eman beharko duena.
 - Bere jarduera akademikoa, prestakuntza-lana eta ordezkaritza- nahiz partaidetza-betebeharrak betetzeko eskubidea, aldeztatik antolakuntza-unitateari jakinarazita.
 - Ikasle ezinduen kasuetan, beharrezkoak diren baliabideak jasotzeko eskubidea, praktikak besteen baldintza berdinetan egiteko eta tutoretza, informazioa eta ebaluazioa jasotzeko.
 - Ikasle ezinduen kasuetan, praktiken garapena eta ezintasunaren ondorioz eratorririko edo harekin loturiko jarduera eta egoera pertsonala egokitzeko eskubidea.
- 2.- Era berean, honako betebeharrak izango dituzte ikasleek, kanpoko praktika akademikoak egin bitartean:
- Unibertsitateak kanpoko praktikei buruz ezarri duen eta indarrean dagoen araudia betetzea.
 - Praktiken gaineko Prestakuntza Proiektua ezagutzea eta betetzea, antolakuntza-unitateak izendaturiko instruktorearen oharrei jarraiki eta unibertsitateko tutorearen begiradapean.
 - Praktikak egiten dituen bitartean unibertsitateko tutorearekin harremanetan egotea eta edozein gorabeheraren berri ematea, eta, era berean, tarteko jarraipen-txostenak eta amaierako txostena ematea, adierazitako epean eta eran.
 - Hitzarturiko egunean antolakuntza-unitatean lanean hastea; hezkuntza-proiektuan aurreikusitako ordutegia betetzea, eta erakundearen jarduerarako, segurtasunerako eta lan-arriskuen prebentziorako arauak errespetatzea.
 - Hezkuntza Proiektua garatzea eta antolakuntza-unitatearekin hitzartutako jarduerak prestasunez betetzea, proiektuan zehaztutako lan-ildoen arabera.
 - Praktiken azken memoria eta, hala behar izanez gero, tarteko txostena egitea, Ikaslearen Kanpoko Praktikak Arautzeko UPV/EHUren Araudiko V. eranskinean jasotako ereduaren arabera.
 - Antolakuntza-unitateari buruzko informazioa isilpean gordetzea, eta egin dituen jardueren gaineko lanbide-sekretua gordetzea, bai praktikak egiten ari den bitartean, bai praktikak amaitu ondoren.

- h) Errespetuzko jarrera izatea, une oro, antolakuntza-unitatearen politikaren aurrean, UPV/EHUren izan ona zainduz.
- i) Indarrean dagoen araudian aurreikusitako beste betebeharrak batzuk.

3.- Aurreko atalean aurreikusitako betebeharrak bete ezean, praktika bertan behera utzi ahal izango da, bukatu aurretik. Horren harira, UPV/EHUK edo Antolakuntza Unitateak hitzarmenean ezarritako Jarraipen Batzordeari jakinaraziko dio ez-betetzea, eta horrek praktika lehenago etetearen egokitasunari buruzko erabakia hartu beharko du, 10 eguneko epean gehienez.

4.- Ikasleak praktikara ez joateko aukera izango du azterketak egiteko, hiru egun lehenago instruktoreari dagokion justifikazioa emanda. Arrazoi akademikoak edo bestelako arrazoiak eraginez praktiketara joan ezin bada, ikasleak lehenbailehen jakinaraziko die tutoreari eta instruktoreari, eta, hala badagokio, tutorearen baimena beharko du.

Zazpigarrena.- Instalazioak eta baliabideak.

Antolakuntza-unitateak bere instalazio eta baliabideen erabilera bermatuko du praktikak egiteko, eta hartu ahal izango dituen ikasleen kopurua zehaztuko du.

Zortzigarrena.- Erantzukizunak eta aseguruak

1.- UPV/EHUK erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat hitzartua du, ikasleek praktikak egitean egin ditzaketen kalteak estaltzeko.

2.- Praktikak egin ahal izateko, aseguru bat kontratatu beharko dute 28 urtetik gorako ikasleek. Aseguru osagarri hori UPV/EHUK izenpetutako «CUM LAUDE» istripu-poliza kolektiboa izan daiteke, edo beste erakunde batek eskaintako beste aseguru bat, baldin eta, gutxienez, UPV/EHUren bidez eskaintzen diren kontzeptuak («CUM LAUDE») aintzat hartzen baditu. Egokia irudituz gero, modu osagarrian kontratatu ahal izango da aseguru hori, aipatutako adina bete aurretik.

3.- Eskola-aseguruak Berezko Ikasketetako ikasleak aintzat hartzen ez dituzenez, sor daitezkeen halabeharrak Berezko Tituluaren zuzendari akademikoak sinatutako polizen bidez aseguratu dira.

4.- UPV/EHUrekin hitzarmena duten unibertsitate atzerriarretako ikasleek istripu-poliza bat kontratatu beharko dute, gutxienez «CUM LAUDE» polizaren antzeko estaldura izango duena, praktikak bertan egin behar badituzte.

Bederatzigarrena.- Poltsa edo laguntza

Ikasleak ez du kopururik jasoko praktikak egitearen truke.

Nolanahi ere, kanpoko praktika bururatzeari ikasleari ikasketetarako burtsa edo laguntza bat abonatu behar bazaio, erakundeak indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-obligazioak bete beharko ditu.

Hamargarrena.- Ikaslearen datuak babestea

Enpresan praktikak egiten dituzten ikasleen datuak Hitzarmen honetan ezarritako xedeetarako baino ezin izango dira erabili.

Hamaikagarrena.- UPV/EHUn beste konpromiso batzuk

1.- Aurrekoei kalterik egin gabe, parte hartzen duten ikasleei dagokienez, UPV/EHUK honako konpromiso hauek hartzen ditu.

- a) Hitzarmen honen baldintzak jakinaraztea, ikasleari eragiten dioten alderdi guztietan.
- b) Ikasleak bere gain hartzea Hitzarmen honek eta aplikagarria den araudiak ezartzen dizkion betebeharrak.
- c) Ikasleak berariaz onartzea bere datuak uztea, aurreko Klausulan aurreikusitako xedeetarako.

2.- Aurrekoaren ondorioz, UPV/EHUK ikasle bakoitzak sinatutako dokumentuaren kopia bat emango dio antolakuntza-unitateari.

Hamabigarrena.- Jarraipen Batzordea

1.- Jarraipen Batzorde bat eratuko da, Ikastegiko edo tituluaren ardura duten Berezko Ikasketen bi ordezkariak eta antolakuntza-unitatearen beste bi kidek osatuta. Horren egitekoa izango da praktikak egitean edo hitzarmena betetzean sor daitezken gorabeherei buruzko erabakiak hartzea.

2.- Batzordea eratzean, sinatzaileak batzordeburu izango dira txandaka, eta UPV/EHUri egokituko zaio hasierako txanda.

Hamahirugarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

1.- Hitzarmen honek indarraldi mugagabea izango du sinatze-datatik, baina sinatzen duten aldeek denuntziatu ahal izango dute, hemen hitzartutakoak ondorioz ez izatea nahi den ikasturtearen aurreko ikasturteko martxoan baino lehen jakinarazita.

2.- Hitzarmenaren denuntzia idatziz egingo da, eta ez die eragingo hura egitean bideratzen ari diren praktikei, praktikak alde aurretik eteteko Seigarren Klausulan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Eta aurrekoarekin ados daudela erakusteko, parte hartu duten aldeek hezkuntza-lankidetzako hitzarmen honen bi kopia sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta datan.

UPV/EHU-REN IZENEAN

(Sinadura eta zigilua)

ANTOLAKUNTZA-UNITATEAREN IZENEAN

(Sinadura eta zigilua)

IX. ERANSKINA

UPV/EHU-KO IKASTEGIAREN ETA ANTOLAKUNTZA-UNITATEAREN ARTEAN HEZKUNTZA-LANKIDETZARAKO PROGRAMA BAT GARATZEKO HITZARMENA

.....jaun/andreak,
ikastegiko zuzendariak,
 eta.....jaun/andreak,.....antolakuntza-unitatearen
 (kargua).....-ak,

Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen hau sinatu dute, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzeko azaroaren 28ko 1707/2011 Errege Dekretuak eta Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUren Araudiak ezarritakoaren arabera.

- 1.- Programan parte hartuko duen ikaslea:jn/and.
- 2.- Antolakuntza-unitateko instruktorea:.....jn/and.
- 3.- Ikastegiko tutorea:jn/and.
- 4.- Praktikako programaren arduraduna:jn/and.
- 5.- Prestakuntza Proiektua:
 - a) Hezkuntza-helburuak:

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO OINARRIZKO GAITASUNAK:
1.- 2.- (...)
IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN OROKORRAK:
1.- 2.- (...)
IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK:
1.- 2.- (...)

- b) Garatu beharreko jarduerak edo lanak:

Egin beharreko jarduera edo lanen azalpena
1.-
2.-
(...)

- 6.- Non egingo den jarduera:

- 7.- Programaren iraupena eta ordu kopurua:
- 8.- Praktika eten ahal izango da behar baino lehenago, azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretuaren 9. artikulua ikasleei ezarritako betebeharrak betetzen ez diren kasuetan.
Horren harira, UPV/EHUK edo Antolakuntza Unitateak hitzarmenean ezarritako Jarraipen Batzordeari jakinaraziko dio ez-betetzea, eta horrek praktika lehenago etetearen egokitasunari buruzko erabakia hartu beharko du, 10 eguneko epean gehienez.
- 9.- Ikasleak praktikara ez joateko aukera izango du azterketak egiteko, hiru egun lehenago instruktoreari dagokion justifikazioa emanaz gero.
Arrazoi akademikoaren edo bestelako arrazoiaren eraginez praktiketara joateko aukera izan ezean, ikasleak lehenbailehen jakinaraziko die tutoreari eta instruktoreari, eta, hala badagokio, tutorearen baimena beharko du.
- 10.- Ikaslea laguntzeko poltsaren zenbateko osoa(1).....eurokoa izango da, hilabetearen. Kopuru horri PFEZaren atxikipena egin beharko zaio, baita indarrean dagoen legediak aurreikusitako legeko gainerako atxikipenak ere.
- 11.- Antolakuntza-unitatean praktikak egiten dituzten ikasleen datuak Hitzarmen honetan ezarritako xedeetarako baino ezin izango dira erabili.
Ikasleak baimena emango die Unibertsitateari eta antolakuntza-unitateari bere datuak uzteko eta aurreko paragrafoan ezarritako xedeetarako erabiltzeko.
- 12.- Nolanahi ere, aldean eskubideei eta betebeharrari dagokienez, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUREN Araudiak ezarritakoa bete beharko da.
- 13.- Jarraipen Batzorde bat eratuko da, Ikastegiko edo tituluaren ardura duten Berezko Ikasketen bi ordezkari eta antolakuntza-unitatearen beste bi kidek osatuta. Horren egitekoa izango da praktikak egitean edo hitzarmena betetzean sor daitezken gorabeherei buruzko erabakiak hartzea.
Batzordea eratzean, sinatzaileak batzordeburu izango dira txandaka, eta UPV/EHURI egokituko zaio hasierako txanda.
- 14.- Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenaren indarraldiak bat egingo praktikaldiarekin, eta, nolanahi ere, Ikasleen kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUREN Arautegiaren 5.3 artikulua ezarritako gutxieneko baldintzak bete beharko ditu.

IKASTEGIAREN IZENEAN

ANTOLAKUNTZA-UNITATEA

IKASLEA

- (1) Antolakuntza-unitateak poltsa edo kudeaketa-gastuak kontzeptuetan kopururik eman ezean, 10. puntuan "edukirik gabe" testua jarriko da.

X. ERANSKINA
“VENIA DOCENDI”REN ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN AITORTZA

I.- DATU OROKORRAK

Instruktoareen izen-deiturak	
Erakunde laguntzailea	
Ikasturtea	

.....Campuseko errektoreorde.....jaun/andreak,
Unibertsitate Ikastegiak eta.....Campuseko praktika akademikoen zuzendari
 arduradunak hala proposatuta eta Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUren 13.
 artikulua aplikatuta, “Venia Docendi” izendapena ematen diojaun/andreari,
 ikasleen instruktore gisa eta jarraian zehaztutako praktika akademikoetan egindako laguntza-jardueraren truke:

IKASLEA	PRAKTIKAREN IZENA
1.-	
2.-	
(...)	

Errektoreordearen sinadura eta data

XI. ERANSKINA
PRAKTIKA EGINGO DUTEN IKASLEEK IZENPETU BEHARREKO AGIRIA

I.- DATU OROKORRAK

Erakunde laguntzailea/antolakuntza-unitatea	
Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslearen NAN zk.	
Ikaslearen titulua	

.....(e)n,(e)koren(e)(a)n

..... jaun/andreak, NAN zenbakidunak eta
 UPV/EHUko ikasleak,

ADIERAZI DU

- Kanpoko praktikak egiteko UPV/EHUren eta Datu Orokorren atalean aipatutako Erakunde Laguntzaile/Antolakuntza Unitatearen arteko Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenaren baldintzak ezagutzen dituela, berari dagozkion arlo guztietan.
- Aipatutako hitzarmenak eta aplikagarria den araudiak ezarritako eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen duela.
- UPV/EHUri eta Erakunde Laguntzaile/Antolakuntza Unitateari baimena ematen diela bere datuak uzteko eta erabiltzeko, hitzarmenaren hamaikagarren klausulan ezarritakoaren arabera.

Eta, dagozkion xedeetarako, goian aipatutako datan eta lekuan sinatzen dut

Sinadura

XII. ERANSKINA
JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALERAKO ESKUBIDEAK UZTEKO ETA TRANSMITITZEKO
EREDU ORIENTATZAILEA

I.- DATU OROKORRAK

Erakunde laguntzailea/antolakuntza-unitatea	
Ikaslearen izen-deiturak	
Ikaslearen NAN zk.	
Ikaslearen titulua	

.....(e)n,(e)koren(e)(a)n

Alde batetik,..... jaun/andreak, NAN zenbakidunak eta UPV/EHUko ikasleak,

Bestetik,jaun/andreak, Erakunde Laguntzaile/Antolakuntza Unitatearen ordehari gisa,

ADIERAZI DUTE

- 1.-(ikaslearen izena) jaun/andreak hezkuntza-lankidetzako praktikak egingo dituela Erakunde laguntzaile/Antolakuntza Unitatean.
- 2.- Gerta daitekeela praktika horien ondorioz patentagarria den ordenagailu-programa/datu-base/asmakizun bat edo ekonomikoki ustia daitekeen beste emaitzaren bat sortzea.
- 3.- Ikasleak ezagutzen dituela Kanpoko praktikak egiteko UPV/EHUren eta Datu Orokorren atalean aipatutako Erakunde Laguntzaile/Antolakuntza Unitatearen arteko Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenaren baldintzak, berari dagozkion arlo guztietan.

ERABAKI DUTE

Lehenengoa.-(ikaslearen izena) jaun/andreak utzi egiten dizkiola Erakundea Laguntzaile/Antolakuntza Unitateari ADIERAZI DUTE ataleko bigarren puntuan aurreikusitako emaitzen ustiapenaren gaineko eskubideak, eta horrek onartu egiten dituela, behin betiko eta edozein lurralde eremutan.

Bigarrena.- Erakunde Laguntzaile/Antolakuntza Unitateak horiek babesteko eta ustiatzeko ekintzak egiteko konpromisoa hartzen duela.

Hirugarrena.- Erakunde Laguntzaile/Antolakuntza Unitateak emaitza horien ustiapenaren bidez lortutako irabazien % X jasotzeko eskubidea izango duela ikasleak.

Eta, horrela jasota gera dadin, bi aldeek bina kopia sinatzen dituzte(e)n,.....ren.....(ea)n.

Erakunde laguntzaile/antolakuntza-unitatearen ordezkaria

Ikaslea